

474.  
2026ko ekaina

# Irunero

**Bidasoako  
Erraldoiak:**  
Haizea harrotuz,  
festa pizten



Aldi baterako egonaldiak

## Zainketak, behar dituzunean

Zainketa-premia puntualetarako irtenbide egokia.

**caser**  
residencial

Caser Residencial  
Gipuzkoa

Kontsultatu hemen zure  
egoitzarik hurbilena



# aurkibidea

<b>Bertatik Bertara</b> - Antojuko Errota	4
<b>Kalean Bai</b> - San Martzial igoera	6
<b>Oiassotik Irunera</b> - Hogeit urte Oiassorekin	7
Alarde Tradizionala	8
Alarde Publikoa	10
Folkesi	12
Bidasoako Erraldoiak	14
Irratizaleen erakustaldia	20
<b>Bertso jarriak</b>	23
<b>Denbora pasak</b>	23
<b>Kirola</b> - Txingudi Eskubaloia	24
<b>Kirola</b> - BHT Bidasoako Halterofilia kirol kluba	26
<b>Beti Gazte</b> - Txingudi Ikastolako ikasleak AEBetan	28
<b>iGazte</b>	30
<b>Kultura</b>	31

ELKARRIZKETA: **FOLKESÍ** 12KIROLAK: **TXINGUDI ESKUBALOIA** 24

## irunero

**Erredakzioa:**  
Ainara Berges  
erredakzioa@irunero.eus

**Administrazioa:**  
Joseba Arozena

**Zuzenketa:**  
Aitor Lete

**Publizitatea:**  
Amaia Terrazas  
Ion Otxoa  
Joseba Arozena  
(jarozena@irunero.eus)

**Diseinua eraberritzea eta maketazioa:**  
Maialen Sayans

**Inprenta:**  
Antza

**Argitaratzailea:**  
837 comunicaci3n y publicidad S.L.  
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943042052

**Webgunea:** irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



BEGI-BISTAN



## 6,2 MILIOI EURO

Irungo Udalak aurtengo udal-aurrekontua handituko du 6.225.950 euroko kreditu-aldaketa baten bidez

Inbertsio horren zatirik handiena (5 milioi euro) aurtengazatuko da, eta gainerakoa (1,1 milioi euro) hurrengo ekitaldirako gordeko da.



## E78 LINEA

Lurraldebuseko E78 linearen zerbitzua igandetik ostegunera luzatuko da maiatzaren 17tik aurrera.

Autobusak 23:15etik 00:15era irtengo dira Irunerantz eta 23:30etik 00:30era Hondarribirantz ordutegi berriari esker, ordu erdiko tartearekin.



## 2.573 KIROLARI

2.573 kirolarik eman dute izena maiatzaren 28tik 31ra Irunen egin den Europako OCR (Obstacle Course Race) Oztopo Lasterketen Txapelketan.

Hitzordua une erabakigarrian iritsi da hirira, kirol hau diziplina ofiziala izango baita Los Angeleseko 2028ko Joko Olinpikoetan.



## 442 BOTO

Oier Duharten 'Eguna iritsi da' lanak irabazi du 2026ko Sanmartzialetako kartel lehiaketa.

Maiatzaren 4tik 14ra bitartean egindako bozketan 1.586 pertsonak hartu dute parte, iaz baino parte-hartze handiagoa izanez.



## 29. EDIZIOA

Ezezagunok antzerki talde irundarrak Max Amateur 2026 saria irabazi du sariketaren 29. edizioan.

Taldea Ana Perezek (1959-2024), Miren Etxeberriak eta Luisma Morenok sortu zuten, eta gaur egun 21 antzezlek osatzen dute.



## 18 KIROL KLUB

Irunen 18 kirol-klubek atek ireki dituzte emakume eta neskatuen parte-hartzea sustatzeko.

Irunen 18 kirol-klubek atek ireki dituzte emakume eta neskatuen parte-hartzea sustatzeko.



SALMENTA-ALOKAIRUAK - PROMOZIO BERRIAK - AHOLKULARITZA

Beraketa kalea, 17 | (+34) 943 64 64 12 | info@inmobiliariaolaizola.com  
20302, Irun | www.inmobiliariaolaizola.com





BERTATIK BERTARA

# BERTAKO ARTO IRINA BERRIRO EHOTZEKO ERRONKARI HELDU NAHIKO LIOKETE ANTOJUKO ERROTAN

Katea auzoko Antoju baserrian kokaturiko errota honek lau mende baino gehiagoko bilakaera luzea du eta bere burdinola galdu badu ere, errotarria eta mekanismo osoa bere horretan mantentzen ditu. Xabier Berroak bere birraitonaren ondarea babesteko eta etorkizunean egitura konplexu hori berriro martxan jartzeko dituen asmoak azaldu ditu.

## Noiz sortu zen Antojuko Errota?

Antojuko Errota 1580. urtearen ingurutik egon da martxan. Errota Elatzeta mendiaren magalean kokatua dago eta Mokozerrotz errekararen iturburutik ura hartzen duen erreka da. Esan daiteke, beraz, XVII. mendearan inguruan martxan jarri zen errota dela. Eta ez errota bakarrik, 1638. urteko testamentuetan ageri denez, forja moduko bat ere bazuen. Horrek bide ematen digu esateko azpiegitura honek gehiegizko tamaina duela, bi lanetarako egina baitzegoen.

## Beraz, atzetik bilakaera eta historia luzea duen errota da Antojuko.

Bai, esan daiteke, historian zehar errota honek errotrari asko izan dituela, baina ez jabe asko, ordea. 1900. urtera arte bai Antoju baserria eta bai Antojuko Errota jabetza beraren barnean egon dira, baina maizter edo errotrari asko izan ditu. Nola ez, 1899ko eta 1900. Urteko tartean bi baserrien ibilbidea banandu egin zen eta jabe ezberdinak izan ditu ordutik. Bitartean, errotrak bere eraldaketak izan ditu, orain adibidez, ez du burdinolarik. Errota, berriz, mantendu egin da eta errotrari bakarra dugu.

## Non lortu duzu errota honen iraganarekin loturiko informazio guztia?

Errotarekin loturiko informazioaren zati bat gure familiaren bitartez iritsi zaigu. Izan ere, gure familiakoak izan dira, 1900. urtetik gutxi gorabehera, bertako jabeak. Baina gainontzekoa biltzeko lan asko egin dute errotrazale askok. Adibidez, guk ezin dugu jakin errotrari bat nondik datorren edo zein jatorri izan dezakeen. Lehengo astean bisitan etorri zen adituak kontatu zigun errotraria Frantziatik edota Erro arantetik ferrokarrilean ekarria izan daitekeela.

**“Ba azkenekoz nire birraitonak eta birramonak erabili zuten 2005. urtera arte, gutxi gorabehera”**

Orduan, erroten inguruko hipotesi asko daude, baina Gipuzkoako lurraldean bada gai honen inguruan asko dakien jendea eta gaia ikertzen

ari dena, egun mantentzen diren errota guztiak bisitatzu informazioa jasotzen ari direnak.

## Errota hau, beste asko bezala, Irungo eta Katea auzoko bizimoduaren isla dira, baina ez hain aspaldiko garaiekin, ezta?

Bai, atzera pauso bat egin eta lehengo bizimodua ezagutzeko aukera dira, baina oso atzera egin beharrik gabe. Nire birraitonaren bizitzaren zati bat errota zen, nahiz eta aurretik bai bilakaera eta ibilbide luzea egin duen errota izan. Esan beharra dago Irunen garai batean errota asko zeudela, gaur egun hirian hau bezalako ur-errota pribatuak gutxi diren edo galtzekotan dauden arren. Hiriaren eraldaketaren ikuspegia eskaintzen du, noski, eta iraganaren puska bat da.

## Zer ehotzen zen bertan?



Errota honen berezitasunetako bat konfigurazioa da. Normalean Gipuzkoako eta inguruko beste ur-errotek bi errotrari izan ohi zituzten, bata garia irintzeko eta bestea artorako. Gure kasuan, bakarra dugu eta azkeneko urteetan bertako artoa irintzeko erabili zen. Egun ikusi daitekeen konfigurazioan toleara ikusi daiteke, sagardoa egiteko tresna.

## Noiz egon zen azkenekoz martxan?

Ba azkenekoz nire birraitonak eta birramonak erabili zuten 2005. urtera arte, gutxi gorabehera. Harrezkero, geldirik dago, baina esan dezakegu errota osorik dagoela, mekanismo eta egitura osoa mantendu direlarik, erabiltzen utzi zenean bezalaxe. Inguruko errota askok aldiz, egitura mantentzen dute, baina ez dute barruko mekanismorik, edo izatekotan, oso egoera kaxkarrean daude, berriro martxan jartzea ezinezkoa delarik.

## Nolakoa da Antojuko Errotaren mekanismoa?

Gure kasuan, errotraren berezitasuna da daukagun antepara edo presaren paretak. Gutxi gorabehera, 10 bat metroko altuera izango du eta luzeran beste hainbeste. Beste errota askotan ur-hartzea errotran bertan izaten da edo oso gertu. Gure kasuan, 220 metroko kanala dugu, Mokozerrotz errekatik hartuta ura, presaren bitartez. Datu teknikoetan sartuta, presak 15 metroko zabalera eta 40-50 metroko luzera izango du. Errota honen beste berezitasun bat da hustuketarako gunea 70 metro ingurura kokatua duela. Altuera ere aipatzekoa da, 10 metroko altuera duen presari esker, ur gutxi dugun erreka honetan, altuera horrek errota martxan jartzeko aukera ematen du. Lehenago azaldu bezala, errotrari bakarra izateko, bai presa eta gainontzeko azpiegitura guztiak handiegiak direla dirudi. Ur gutxiarekin eta nahiko justu zegoenean, ordu eta minutu batzuetan lan egiteko aukera ematen zuen soilik. Ideia bat egiteko, errota honen irintzeko gaitasuna 2.400 fanega edo italdi ingurukoa da, hitz laburretan, 100.000 kilotik gora, baina bakarrik 600 bat egiten zituen.

## V. Gipuzkoako Erroten Egunean inguruko programazioaren parte izan da Antojuko Errota. Nola iritsi zaizue aukera hori?

Oiartzungo Yurrita elkarteak Alex, bere ingurukoekin batera, izugarrizko lana egiten ari da Gipuzkoako errotekin loturik. Haien eskutik eta baita Gordailuko Asier eta Xabierren eskutik Behe Bidasoko erroten katalogo bat osatzen hasiak dira, egun bertako erroten egoera zein den aztertzeko, gero eta errota

gutxiago baitaude, Irunen adibidez. Lehendabizi errota bisitatzera etorri ziren eta beraiekin hizketan, aurten Gordailuan errotraren biltzarra egingo zela baliatuz, aukera eman ziguten elkarlanean pare bat bisita gidatu egiteko, bertako jendeak Irunen dauden errotrak ezagutzeko aukera izan dezan.

Ezbairik gabe, sekulako fruituak eman ditu aurreko eguneko bisita gidatuak. Bertan parte hartu zuten, guk bezala, errota geldituta daukaten eta martxan jarri nahi duten errotrari askok, eta beraiek nola egiten ari diren kontatu ziguten. Ikertzaile askok ere hartu zuten parte, Gipuzkoako erroten katalogoa osatzen lagundu dezakeen informazioa ematen. Eta nola ez, hain denbora gutxian hainbeste aldatu den Irungo hirian, denboran atzera egiteko aukera ematen dizun txoko hau ezagutu nahi zutenak ere izan ziren bertan.

## ETBko Herri Txiki, Infernu Handi saioan Antojuko Errota ere izan zen protagonista.

Helburua ez da telebistan agertzea, baina askotan gutxi eginez ateak irekitzea lortzen da. Azkenean, Gipuzkoan egoera honetan dauden errota pribatuak daudela jakinarazteko modu bat da, horiek egoki mantentzeko bere zailtasunak dituelako. Lehen lan publikoa egiten zuen errota pribatu honek, orain irindu beharrean, bere lana publikoari erakusteko balio dezake, hemen bertan nola bizi ziren erakutsiz.

## Baduzue etorkizunean errota martxan jartzeko asmorik eta, hala bada, nola egingo duzue?

Ez, gauza ez da erraza; nahiko konplikatu da. Zalantzarik gabe, asmoa errota mantentzea da, martxan egon ez arren. Nire ilusioa berriz ere Antojuko Errotak bertako arto irina sortzea izango litzateke, artoa gainera mantendu dugu. Asmoa, beraz, errota honen ura berriro martxan jartzea da. Horretarako, errotraren azpiegituran lanak egin behar dira, hori ez da hain konplikatu. Konplexuagoak dira presaren paretetan egin beharrekoak, hainbeste urtez geldirik egon ostean, zirrikituak dituzte eta gaizki eginez gero, azpiegitura hori kaltetzeko aukera gehiago dago, mantentzeko baino. Beraz, gauzak poliki-poliki egin beharko ditugu, ez da bi urtean egingo, baina espero dugu errota hau berriro martxan jartzea.

**“Nire ilusioa berriz ere Antojuko Errotak bertako arto irina sortzea izango litzateke”**

**atrezzo**  
marko denda

Geltoki kalea, 16 info@atrezzo.eus 943617298 www.atrezzo.eus

## BATEK XLVIII. SAN MARTZIAL IGOERA ANTOLATU DU AURTENGO SANMARTZIALETARAKO

Uda iristearrekin batera, Bidasoaldeko paisaia aldatu egiten da. Zapatilen hotsa eta arnasa estua gailentzen dira Irunen, baita hiriko jaietan zehar ere. Aurten ere, Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak jaiak kirola eginez ospatzeko erronka proposatzen die korrikalariari, hiriko jaiekin bat eginez, Carrocerías Euskalduna XLVIII. San Martzial igoera antolatuz.

Aurretik, klubak beste erronka bat izango du, ekainaren 7an Irungo erdigunean. X. Irungo Miliak - 5K Salto Foundation probak kirola eta inklusioa uztartuko baititu. 5 kilometroko zirkuitu homologatua, milia herrikiokiak eta haurrentzako probak izango dira, Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkarteari laguntzeko martxa solidarioarekin batera.

Baina indarrak neurtzeko une gorena ekainaren 27an iritsiko da. XLVIII. San Martzial igoerak 3,6 kilometroko ibilbidea eskaintzen du. Goizeko 10:30ean Urdanibia plazatik irten eta ermitaraino, korrikalariak euren muga fisikoak probatuko dituzte jai giroan murgildu aurretik. Helmugan kategorია bakoitzeko lehen bost sailkatuak sarituko dira.

San Martzial Igoera BATEk antolatzen duen proba gogor eta zaharrenetarikoa da aldi berean. Ibon Muñoz Bidasoa Atletiko Taldeko gerentearen hitzetan, “lasterketa honetako parte-hartzaile gehienak irundarrak dira, eskualdeko biztanleak eta korrikalari frantsesen bat ere animatzen delarik”. Bereziki, igoerak gustuko dituzten korrikalariak nabarmentzen dira. Azken urteetan, gainera, korrikalari gazte asko animatzen ari dira igoeran lehen aldiz parte hartzera, probaren osasun onaren erakusgarri dena.

Lasterketan zehar eta bereziki San Martzial Mendiko helmugan oso giro ona izan ohi dela adierazi du Ibon Muñozek: “ez da klubean onura ekonomiko gehien uzten duen proba, baina jaietako ohiko hitzordu bihurtu da, aurtengoa 48. edizioa izango baita”. Ibilbide aldatuak ere ez du publikoa kikiltzen. Ibon Muñozek adierazi du jendea lasterketaren 4 puntu estrategikoetara gerturatu ohi dela animoak ematera: irteerara, Blaia eta Artiga kaleetako bidegurutzera, Txingudiko igerilekuko kurbara eta ibilbidearen amaierako azken bi kurbetara.

### Izen-ematea zabalik

Izen-ematea online egin daiteke 12 euroan ekainaren 26ra arte, edo bestela, 16 euroren truke probaren egunean bertan irteeragunean. Irailaren 5ean, lekukoa Hondarribira igaroko da. XLVIII. Guadalupeko igoera lasterketa klasiko bat da herriko jaien atarian eta aurten, gainera, Guadalupe Txikia

**“Iazko edizioan lasterketak errekor berria lortu zuen, guztira, 158 parte-hartzaile izan zituelako probak”**

proba ere berreskuratuko da. Mendiko aldapak maite dituztenentzat, antolakuntzak promozio berezi bat aktibatu du: bi igoerak burutu nahi dituztenentzat “Igoera Packa”

dago eskuragarri. Bi probak bakoitza bere aldetik 24 euroan ordaindu beharrez, 18 euro soilik kostatuko da pack-a hartuz gero, hau da, 6 euroko aurrezpena.

Ibon Muñoz Bidasoa Atletiko Taldeko gerenteak adierazi duenez, “iazko edizioan lasterketak errekor berria lortu zuen, guztira, 158 parte-hartzaile izan zituelako probak”. Dena den, Ibon Muñozek adierazi duenez, lasterketa berezia denez, jendeak probaren aurreko azken egunetan egin ohi du izen-ematea, gainera, kasu honetan, probaren egunean bertan ere egin daiteke. “Lasterketa gogorra izan arren, korrikalari gazte berriak parte hartzera animatzen jarraitzea nahi dugu, probaren etorkizuna bermatzeko”, erantsi du BATEko gerenteak.



**“Lasterketa gogorra izan arren, korrikalari gazte berriak parte hartzera animatzen jarraitzea nahi dugu”**

## HOGEI URTE OIASSOREKIN: IRAGANAREN ZAINDARIAK

Uztailaren 20an, OIASSO Museoa bere hogeigarren urteurrena ospatuko du. Bi hamarkada, eta a zer nolako hamarkadak gainera. Irunen 2006an zabaldu zenetik, museoa ez da soilik erakusketa gune bat izan: gure hiriaren memoria biziaren gordailu bihurtu da, eta irundarron nortasunaren zati ezinbestekoa.

Arkeolan Fundazioaren eskutik egindako indusketa arkeologikoez erabat eraldatu zuten ordura arte ezagutzen genuen errelatoa. Indusketa horietan egindako aurkikuntzei esker erromatarren garaiko portua, nekropolia eta meategiak ezagutu ahal izan genituen. Ikerketa horiek punta-puntako ondarea azaleratu zuten, eta 12 eta 15 hektarea arteko hiri erromatarra agertzen hasi zen pixkanaka. Horri esker, Oiassoko eguneroko bizitza ezagutzeko aukera jaso genuen.

Hala ere, jasotako guzti horri behar zuen garrantzia emateaz gain, gure historia partekatuta ahal izateko museoa sortzearen aldeko apustu ikaragarria egin zen. Arkeologoen lan isilari oihartzuna zor zaio, eta euripean edo kiskaltzen duen eguzkipean, lokatz eta lur artean historiaren puzzlea eraikitzeko aztamarik txikienaren bila dabilzanen lana ezin da ezkutuan utzi. Honela bada, hiri hartan bizi ziren gizon-emakumeen aztarnak, beren eguneroko tresnak, jantziak, ontziak, zeramikak, arrantzarako tresnak, baita meategietakoak ere, gaur egun Eskoleta kaleko eraikinean gorde eta erakusten dira.

Hogei urte hauetan, museoa irundarren bihotzetan leku berezia irabazi du, eta bizirik dagoela erakutsi du. Bisitak, erakusketak, bisita gidatuak, tailerrak, ikastaroak, antzerki ikastaroak, hitzaldiak, bidaiak, FICAB arkeologia zinemaldia, argitalpenak, jaialdiak, Dies oiassonis jaialdia... Eta nola ez, saretea, bai beste kultur eragileekin, baita erakundeekin, unibertsitate eta ikerlariarekin eta gure kide diren museoekin -gure ingurukoekin eta baita mundu mailakoekin-. 2025ean, gainera, sorreratik genuen ametsa gauzatu zen, eta museoaren ondoan industuta zeuden termak ikusgai jarri dira, eta hori Oiassoren garrantziaz jabetzeko aukera ezin hobea da. Benetan ikusgarriak dira, gainera!

Ama Xantalengo Nekropoli zoragarria, Oiasso museoa, Termen eraikina eta orain, berriro irekiko den Irugurutzetako meatze barrutiak benetan borobiltzen du Irun erromatarren bixita. 20 urte pasa dira, baina hor jarraitzen du museoak inoiz baino biziago eta inoiz baino jende gehiago erakartzen, gainera. Harro egoteko modukoa, alajaina! Baina batez ere, museoak egiten duen eskaintzari Irunek eta irundarrek biziki erantzuten diotelako.

Dies Oiassonis ospakizunak uztailaren 16tik 19ra bitartean egingo dira, eta hain juxtu ere, festa horiek amaitu eta hurrengo egunean, hogeigarren urteurrenaren ospakizun handia izango dugu. Baina ospakizunak ez ditugu egun bakar batean eta ekitaldi bakar batekin amaitu nahi. Horregatik maiatzean bertan, Museoen Nazioarteko eguna zela eta, Arkeolan Fundazioko eta Oiasso Museoko sortzailea eta zuzendaria izan zen Mertxe Urteagaren hitzaldiarekin eman diogu gure

urtebetetze ospakizunei hasiera.

Benetan azpimarratzeko moduko hitzaldia izan zen, eta ordubetez, museoaren oinarri diren piezen aurkikuntzetatik hasi zen kontakizuna, izan ere, 1992an egin zituzten indusketen emaitzak sekulakoak izan ziren, eta arkeologo gazte haiek ikertu eta sailkatzeko metodologia ere ekarri behar izan zuten; eta hori gutxi balitz, bertan topatu zuten Ctesibioren balbula, penintsulan topatu ziren erromatarren garaiko lehendabiziko melokotoi hezurak, zeramikak (150.000 puska topatu dira), larruzko oinetakoak, eta beste hamaika pieza bildu eta 1995ean erakusketa bat antolatu zuten Amaia Kultur Zentroan. Helburua ez zen besterik gabe topatu zen guzti hura erakutsi eta balioan jartzea, baizik eta Mertxek zioen bezala, erromatar kultura hemen, gure artean, bizi izan zela kontaktea eta ezagutzera ematea. Izan ere, gizarte batek bizirauteko beste kulturek eskaintzen dituzten aurrerapauso eta aberastasunetatik edan behar du.

Hala ere, ehundaka oztopo gainditu behar izan zituzten, uztailaren 20 hartan, Termak atzeko aldean zituen Eskoletako eraikineko atea zabaltzeko. Bere esanetan, museo bizi eta atsegina nahi zuten, eta oso ondo zahartu den museoa dela azpimarratu zuen. Eta urte guzti hauetan egindako lanak guzti hori ondo baino hobeto islatzen du.

Eskerrik asko Mertxeri, Jaime Rodriguez Salisi, eta beste hainbat bidelagunei, amets hori egia bihurtu zenuten guztioi. Uztailaren 20an, 20 kandela baino 20 suziri piztu beharko genituzke!

Eta datozen urteak orain artekoak bezain oparoak eta aberatsak izan daitezela.



## SAN MIGUEL KONPAINIAREN 125 URTEAK, 1962AN KANTINERA IZANDAKO PILI GORDOREN BEGIETATIK

Aurten ez da nolanhiko urtea Alarde Tradizionaleko San Miguel konpainiarentzat. Konpainia historiko honek 125. urteurren borobila betetzen du aurten, mende bat eta laurdeneko ibilbide oparoa. Mendeurren handi honen aitzakian, iraganeko jaien esentzia gogoratu eta gaur egungo festen bilakaeraz gogoeta egin du Pili Gordok, gaur egun bizirik dirauen konpainiako kantinera zaharrena izaki. Pili 1962. urteko Sanmartzialetan izan zen San Miguel konpainiako kantinera, eta bere oroitzapenek gaur egungo festen gaineko lekukotza paregabea eta bizia eskaintzen dute.

### Herriaren Lehen Konpainiaren Jatorri Bizia

San Miguel konpainiaren sustraiak oso sendo lotuta daude Irungo historia sozialari. 1901. urtean hartu zuen parte lehen aldiz San Martzial Alardean. Hiriaren erdigunean sortu zenez, Herriaren Lehen Konpainia bezala da ezaguna. Harrez geroztik, haren ibilbideak tradiziozko eskubide eta pribilegio berezi bat gorde du Alardearen barruan: ekainaren 30eko goizean, Tanborrada San Miguel konpainia jasotzera hurbiltzen da bere auzora, ondoren elkarrekin Urdanibia plazarantzko bidea egiteko. Hain zuzen ere, San Miguel da plaza historiko horretan sartzen den lehenbiziko konpainia. Auzoak, gainera, harrotasunez gogoratzen du XX. mendearen erdian Alardean bi konpainia izateko ohorea izan zuela. 40ko eta 50eko hamarkadetan gertatu zen hori; bigarren konpainiak RENFE izena zuen.

Pili Gordoren izena San Miguel konpainiaren historiaren parte da, 1962. urtean konpainiako kantinera izan baitzen. Irunen jaio ez arren, jaien taupada txikitatik eraman du odolean: «Ni umetan jada kantinera nintzen», gogoratzen du Pilik irribarre batekin. «Hondarribia kalean bizi nintzen, eta auzoko sanjoanetan, suak amaitutakoan, haur guztiok konpainia bat osatzen genuen gauetan. Eta ni, nola ez, beti izaten nintzen kantinera».

### Ustekabeko emozioa

Gaur egungo prozedura zorrotzetik, boto-paperetatik eta hilabeteetako prestaketa handietatik urrun, 1962ko maiatzean gauzak oso bestelakoak ziren. Pili Londresen egon zen 9 hilabetez ingelesa ikasten eta maiatzaren hasieran itzuli zen etxera, hilaren 2 edo 3an. «Etxera iritsi eta bi egunera, amari deitu zioten telefonoz kantinera hautatuko nindutela esateko. Garai hartan ez zegoen gaur egungo parafernaliarik; ez zenuen zeure burua aurkeztu behar. Zuzenean hautatua zinen auzoan, eta nahi bazenuen, aurrera, eta bestela, ez. Oso hunkigarria izan zen niretzat», azaldu du.

**“Lehen entsegua bizitza osoan egin izan banu bezala bizi izan nuen”**

*Pili Gordo, San Miguel konpainiako kantinera 1962an*

Prestaketak ere askoz xumeagoak eta naturalagoak ziren garai hartan. Soinekoak eta botak udaletxeak berak uzten zituen. Hautaketa



ohikoa baino beranduago egin zenez, Pilik geratzen zirenen artean aukeratu behar izan zuen: «Gaur egun bezalako opari, lore eta detaile handirik ez zegoen; asko jota, gurasoek emandako zerbait eta kitto».

Hala ere, auzoaren berotasunak dena konpentsatzen zuen. Garai hartan San Miguel gaur egungoa baino askoz txikiagoa eta gertukoagoa zen —ez Pinar, ez Anzaran eremua ez ziren existitzen—, eta denek elkar ezagutzen zuten. «Lehen entsegua bizitza osoan egin izan banu bezala bizi izan nuen. Konpainia oso familiarra zen, asko babesten zintuen jendeak. Gainera, nire mutil-laguna zena (gero nire senarra izan zena) eta lagun bat joaten ziren nirekin batera entseguetara, nire alboan».

### Alarde eguneko pasadizoak

Pilik bizi izandako urteak badu leku berezi bat Irungo jaien historian: 1962koa izan zen kantineren aurkezpen ofiziala egin zen lehen urtea, gainera karroza batekin. «Gure karrozak tarta baten itxura zuen, solairuekin, oso-oso polita zen. Colón pasealekutik igaro, hainbeste jende gu txalotzen ikustea eta haien berotasuna sentitzea zoragarria izan zen. Alberto Anguera plazatik udaletxeraino joan ginen eta zuzenean udaletxeko balkoira igo ginen, aurkezpena egiteko». San Pedro egunean, berriz, ez zegoen konpainien arma ikuskapenik: «Egun hori barraketara joanez eta lagunekin kaletik ateraz pasa nuen urte hartan ere, beste edozein urtetan bezala».

Ekainaren 30eko goiza heldu zenean, Pilik pasadizo gogoangarriak eta umoretsuak bizi izan zituen. Inoiz makillatu eta ezpainak margotu gabea zenez, bere burua arraro ikusten zuen ispiluan, eta ezpainak margotu gabe irtetea erabaki zuen; bera eta bandako kantinera izan ziren salbuespen bakarrak. «San Juan plazatik jaisten ari ginela, eskuineko etxe erdi-borobil bateko balkoitik andre batek oihukatu zidan ea zergatik ez nituen ezpainak margotuta. Nik ezer gertatu ez balitz bezala agurtu nuen, abanikoa gogotsu astinduz gainera!», dio barrez.

Goizean konpainia bere bila joan zitzaioneko unea «magikoa eta deskribatzen zaila» bezala gogoratzen du. Danborrada auzoan sartzen zenean, gelditu eta pieza ugari jotzen zituen aurretik, ondoren elkarrekin San Juan plazarantz abiatzeko. Desfilearen amaieran, beste momentu bitxi bat egokitu zitzaion: «Konpainia

desegitear zegoela, gizon batek txapela kendu eta lurrera bota zidan. Nik, itsusi samarra iruditu zitzaidanez nire botarekin zapaltzea, txapela saihestu egin nuen. Gero ingurukoek esan zidaten zapaldu egin behar nuela, hori miresmen keinu bat zelako!».

### Denboraren igarotzea

Urteak igaro ahala, Pilik hurbiletik jarraitu du jaien eta kantineraren irudiaren bilakaera. Gaur egungo kantinerak askoz zurrunago ikusten ditu, protokolo karga, ekitaldi eta eskakizun sozial handiegi baten azpian. «Aholku bat emango banio aurtengo, 125. urteurreneko, kantinerari, naturala izateko esango nioke. Ez ditzala entzun inguruko esamesak edo zabaltzen diren zurrumurruak. Badirudi gaur egun jendea kantinerak nola agurtu behar duten irakasten saiatzen dela, besoa nola altxatu eta nola ez... Horrek ez du hainbesteko garrantzirik niretzat; desfilean barruan sentitzen duzuna adierazi behar duzu, besterik gabe. Niri jaka igotzen bazitzaidan, lasai asko jaitsi eta aurrera egiten nuen, inor begira ote zegoen kezkatu gabe».

Aurten, konpainiaren 125. urteurrenean, San Migueleko kideek eta kantinera ohiek bazkari berezia egin dute jada maiatzean, ekaina iritsi aurretik dagoeneko ospakizunekin hasteko. Bertan hainbat belaunalditako emakumeak elkartu dira, tartean 1975eko kantinera, duela 50 urtekoa. Pilik argi dauka: «Irungo kantinera izan den neska oro bizitza osorako da kantinera. Lotura hori ez da inoiz galtzen».

Gaur egun, aldakako protesi baten ondorioz goizean alardea ikusteko jaikitzen ez den arren eta makulua erabiltzen duen arren, Pili Gordok arratsaldean alardea eta bere konpainia maitatua ikusten jarraituko du. Izan ere, San Miguelgo bihotzak eta jaietarako ilusioak bere horretan jarraitzen dute, auzo baten historia biziari eta 125 urteko harrotasunari betirako lotuta.

**“Irungo kantinera izan den neska oro bizitza osorako da kantinera. Lotura hori ez da inoiz galtzen”**

*Pili Gordo, San Miguel konpainiako kantinera 1962an*

Patxi Pérez Goñi, Alarde publikoko jenerala:

## “ATSEDENIK GABE LAN EGINGO DUT KONFIANTZA HORI ITZULTZEKO ETA ALARDEA ONDO GARATZEKO”

Txilibito jole gisa hasi zuen bidea Alarde publikoan, eta, Anakako konpainiako kapitain izan ostean, jeneral kargu gorena hartzera iritsi da aurten Patxi Pérez Goñi. Erronka berri honen aurrean, inguruko babesa jaso duela eta talde lanaren garrantzia funtsezkoa dela nabarmendu du irundarrak. Jantzia prest eta zaldiz ibiltzeko trebatu ostean, ekaineko egun handiak eta San Martzial jaiak ilusioz eta emozioz gainezka bizitzeko prest dago jeneral berria.

### Nolako ibilbidea egin duzu alarde publikoaren barnean jeneral izatera iritsi aurretik?

Danborradan hasi nintzen txilibito gisa. Hainbat urteren ondoren, nire betiko konpainiara pasatu nintzen, Anakara, eta han kapitain hautatu ninduten. 8 urtez egon nintzen karguan, Covid-era arte. 2 urteko etenaldiaren ondoren, eskopetarekin atera nintzen konpainia berean, gaur arte.

### Zer sentitu zenuen jeneral berria izango zinela jakinarazi zizutenean?

Jeneral izendatu nindutenean poz handiko momentua izan zen. Inoiz ez nuen imajinatu bera ni izan nintekeenik. Jenerala aukeratzeko, prozesu bat dago, ordenantzetan jasota dagoena, Alardearen inguruko beste hainbat kontu bezala.

### Albiste zabalduta zenetik, nola bizitzen ari zara zure inguruko lagun edo familiarekin urte berezi hau?

Oso pozik nago. Albiste jakin zenetik zorion eta babes mezu asko jasotzen ari naiz, lagunena, lankideena, baita kaletik gelditzen zaidan jendearenak ere. Familian, ilusioz beterik daude eta egun horietarako prestaketa lanak egiten.

### Zer esan nahi du zuretzat Alarde Publikoko Jenerala izateak?

Ohore handia da Irungo Alardearen jenerala izatea, oso eskertuta nago Juntari, nigan jarritako aitortza eta konfiantzagatik. Atsedetik gabe lan egingo dut konfiantza hori itzultzeko eta Alardea ondo garatzeko.

### Ekainean murgildu aurretik, lan handiko hilabeteak izango zenituela imajinatzea da. Karguaren atzetik dagoen lan ezkutu horrek harritu zaitu?

Ez nau harritu. Aspalditik parte hartzen dut Alardearen beste batzorde batzuetan, eta badakit horren atzean dagoen lan guztia, alardea antolatu ahal izateko. Ezagutzen ez nituen

xehetasun asko daude, baina dagoeneko lantzen ari naiz horiek guztiak.

Ardura partekatze garaian inguruan lantalde on bat izatea garrantzitsua izango

“Albiste jakin zenetik zorion eta babes mezu asko jasotzen ari naiz, lagunena, lankideena, baita kaletik gelditzen zaidan jendearenak ere”



“Oso hunkigarria izango da nire konpainiari, Anakari, errebista pasatzea, alardean egiten dugun azken ikuskatzea da eta ilusio handiz biziko dut.”

da, noski, ezta?

Erabat. Jende askoren ekarpena eta konpromisoa beharrezkoa da lan guztia banatzeko, bestela ezinezkoa da. Talde bikaina gara eta arrakasta guztiona da, dudarik gabe.

### Aurreko jeneralek aholku lagungarriak eman dizute zure lehen urteari begira?

Pila bat! Maitek, aurreko Jeneralak, oso aholku onak eman dizkit, eta beti dago prest edozertan laguntzeko. Askok miresten dut, bere etapa bikain bete du, baina baita aurretik izan ziren jeneral guztiak ere.

### Zer moduz moldatu zara zaldiarekin?

Ez nekien zaldiz ibiltzen eta ikaskuntza azkartu egin behar izan dut, baina praktika ordu askorekin eta irakasle onak izanda, uste dut prest nagoela erronka horri aurre egiteko. Dena ondo joango dela espero dut.

### Zure prestaketa pertsonalei dagokienez, trajearekin ikusi zara?

Bai, dena prest daukat, ez zait gustatzen gauzak azkenerako uztea. Jantzia ez da zaldiz ibiltzeko erosoena, baina den bezalakoa da. Probatu dut eta arraro ikusten dut neure burua, egia esan, baina ikusi nautenek oso dotore nagoela diote. Hala izango da.

### Jeneralarentzat San Pedro eguna ere berezia izango da. Nolako imajinatzen duzu egun hori?

Bai, San Pedro eguna oso berezia eta polita da, kontatzen didatenagatik. Pentsatzen dut lehen ikuskatzea lagungarri suertatuko zaidala neure burutik nerbioak pixka bat kendu eta gero hurrengo uneez gozatu ahal izateko. Oso hunkigarria izango da nire konpainiari, Anakari, errebista pasatzea, alardean egiten dugun azken ikuskatzea da eta ilusio handiz biziko dut.

### San Martzial Eguna osoko ibilbidetik, zein da zuk gogo handienarekin espero duzun unea eta zergatik?

Pentsatzen dut aurtengoa guztiz desberdina izango dela. Ez dut arrankada biziko, adibidez, baina San Joanetako sarrera oso berezia izango da. Beste momentu batzuk ere bereziak izatea espero dut, nire familia ibilbidean ikusten dudanean, adibidez. Askok gustatzen zait alde zaharreko kale estuetik egindako ibilbidea arratsaldeko arrankadan.

### Zer esango zenieke San Martzial egunean zure agindupean desfilatuko duten gizon eta emakumei?

Eskerrak eman eta besarkada bana emango nieke. Haien parte-hartzearekin, gure hiriko jaiak aberasten laguntzen ari dira, berdintasunarekin, tradizioarekin eta festarekin konprometituz.

2026 honetan, 30 urte betetzen dira emakume talde batek udalari ordenantza aldatzea eskatu zionetik Alardean desfilatu ahal izateko. Hiru hamarkada geroago, herritar guztientzako Udala Alardea eskatzen jarraitzen dugu eta garaia badela uste dugu.

### Sanmartzialetan asko hunkitzen den horietakoa zara edo nola bizi ohi dituzu?

Bai, erraz hunkitzen naiz, ez bakarrik Alardearen egunean, ustekabeko egoerengatik aurreko egunetan ere bizitzen ditut une hunkigarriak. Pentsatzen dut San Martzial egunean, izango dudana karguagatik, zentratuago eta lasaiago egongo naizela; ez dakit, ordea.

### Behin jeneral bezala lehenengo Sanmartzialak gaudituta, nola sentituko zarela uste duzu?

Pozik sentitzea espero dut, horrek esan nahiko du dena ondo atera dela eta denek egindako lan guztiak fruituak eman dituela.

“Jende askoren ekarpena eta konpromisoa beharrezkoa da lan guztia banatzeko, bestela ezinezkoa da”

# FOLKESÍ: URDANIBIA PLAZA SANMARTZIALETAN FOLK DOINUEZ JANZTEKO PREST

Aurtengo Sanmartzialetan Folkésí taldeak igoko du festetako oihala. Datorren ekainaren 13an, Urdanibia plazan, talde irundarrak Gozategi enblematikoaren aurretik berotuko ditu motorrak, folk kutsuko bere proposamen bereziarekin. Beñat Perez (ahotsa), Julio Bravo (gitarra), Marta Ezeizabarrena (biolina), Mikel Aldalur (irlandar txirula), Alvaro Garate (baxua) eta Aitor Etxaniz (bateria) dira seikote honetako kideak. Beñat Perezek aukeraketa honek dakarren ilusioaz eta prestatu duten zuzenekoaz hitz egin du.

## Zer sentitzen duzue aurtengo Sanmartzialetako eszenatokira igoko zaretela dakizuenetik?

Egia esan, oraindik ez dugu sinesten eta erabat eskertuta gaude Irungo hiriarekin eman digun aukerarengatik. Orain dela 3 urte inguru sortutako taldea izan arren, egia da Irun inguruan kontzertu asko eman ditugula, baina ez genuen espero horrelako harrera izango genuenik hirian. Egia esan, ez genuen espero hainbeste boto jasotzea. Urte luzez eszenatokiaren beheko aldean gozatu dugu Sarmartzialez, eta ondorioz, hitzik gabe gaude horrelako aukera baten aurrean, oraindik gertatutakoa sinesteko bidean.

## Zer prozesu jarraitu behar izan duzue aurtengo jaietan telonero bezala aukeratuak izateko?

Folkésirentzat uda izaten da urtean kontzertu eta emanaldi gehieneko garaia. Horren aurretik, barne lan handia egiten dugu udalekin eta tabernekin kontaktatuan jartzeko. Lan horrek bere fruituak dakartza gero eta, horri esker, kontzertuak lortzen ditugu pixkanaka. Aurreko urtekoa gure udarik emankorrena izan zen, 12 bat kontzertu eman genituelako hiru hilabeteetan. Ate joka ibiltzeko prozesu horretan hemengo lehiaketan parte hartzeko aukera suertatu zitzaigun eta horrela izan zen.

## Berezia izango da hiriko jendearen babesa jasotzeari esker, Sanmartzialetan aritzeko aukera izango duzuela jakitea.

Bai, azkenean gu Irungo kontserbatoriotik ateratako lagun talde bat gara, denak musikariak, baina bakoitza bere estiloan. Lehenengo momentutik argi izan genuen zerbait profesionala egiten saiatu nahi genuela, gure estiloan. Tabernetan jotzen hasi

**“Guk estilo hori Euskal Herrira ekarri nahi izan dugu eta gure folk estilo propioarekin nahastu”**

ginen eta horrela joan gara hazten.

**Eta gehiegi aurreratu gabe, zer prestatzen ari zarete**

## Urdanibia plazako emanaldirako?

Gure erreperitorioa lantzen ari gara, batez ere, hori egokituz. Argi dugu kontzertu honek oso dinamikoa izan behar duela, baita denbora aldetik ere. Ondorioz, gure erreperitorioan ditugun abesti ezagunenak sartu ditugu. Badakigu plazan askotariko jendea egongo dela, beraz, folk irlandarra, euskal eta gaztelarazko folkarekin uztatuko dugu. Hortaz, abestiak aski ezagunak izango direnez, jendeak asko gozatuko duelakoan nago.

## Zehazki, nolakoa da Folkésí taldearen soinua?

Folkésí irlandan egiten den musika estilo tradizionala erreplikatzeko nahiarekin sortu zen. Normalean, gitarra, biolina, txirula, abeslaria eta, asko jota, perkusiozko instrumentuek osatzen dute taldea eta pubetan aritu ohi dira garagardo pare batzuekin. Guk estilo hori Euskal Herrira ekarri



nahi izan dugu eta gure folk estilo propioarekin nahastu. Guk erreferente bezala ditugu The Pogues edo Gwendal bezalako taldeak, baina baita, gurera ekarrita, Sorotan Bele, Celtas Cortos edo Mago de Oz. Hori guztia gure estilora egokitzen dugu.

## Ja 4 urte igarota, taldeak bilakaera bat izan duela nabaritu duzue?

Begirada lau urte atzera botaz gero, esango nuke hazkunde oso handia izan dugula. Gehienok hasieran ez genekien zer esan nahi zuen talde bat izateak eta horrelako jauzi profesionala egiteak. Bide honetan asko ikasi dugu, bai eszenikoki, teknikoki zein musikalki. Musikaren munduan nola mugitu behar garen ikasi dugu. Laukote bezala tabernako terrazetan kontzertuak ematen hasi ginen eta azken urtetan hasieran imajinaezinak ziren kontzertuak eman ditugu. Anoetan jo dugu, Baionako pubetan jotzeagatik ezagunak egin gara eta Madalenetan edo Aste Nagusian kontzertuak izan ditugu. Taldea hazten joan den heinean gure estilo musikala hobetu da eta horrek publikoaren babes handiagoa jasotzea eragin du.

## Nola kudeatuko duzue telonero izateak duen ardura?

Erronka polita da. Gainera, Gozategiren aurretik arituko gara, txikitatik gure parrandak girotu dituen taldea. Festazaleak garenak, erreferente gisa dauzkagu eta haiekin kalejira mundialak egin izan ditugu. Imajinatzen dugu jende asko etorriko dela haiek ikustera, beraz, gu gure estiloan arituko gara. Kontzertuetan talde hurbila izan ohi gara, abestiak ezagunak direlako eta erritmoek dantzatzera gonbidatzen dutelako. Publikoa festarako gogoz utzi nahi dugu Urdanibia plazan, Gozategirentzako etxeko lanak ondo eginez.

## Behin kontzertu hori igarota, zeintzuk dira udarako daukazuen planak?

Orain justu udako bira prestatzeko lanean ari gara. Oraindik ezin dugu gehiegi aurreratu, baina esan dezakegu, Sanmartzialen ostean, gure hurrengo hitzordu handia Errenteriako

Madalenetan izango dela, uztailaren 22an, Niesseneko plazan. Ordelegia oraindik finkatzeko daukagu baina gaueko 23:00ak aldera izango da ziurrenik. Izan ere, Errenteriako Udalak ere hasieratik babestu gaitu, kontzertuak egiteko zenbait aukera emanez. Beraz, aurtengo Madalenetan errepikatuko dugu, eszenatoki handiagoarekin eta emanaldi hobearrekin.

## Zer espero dezakete Irungo kontzertua ikustera gerturatuko direnek?

Gure emanaldia oraintxe bertan, Euskal Herri mailan, ikuskizun bakarrenetakoa dela esango nuke. Alde horretatik, gure estiloa nahiko berezia da eta ziurrenik orain arte ikusi ez duten zerbait ikusi ahal dute bertan. Dena den, euskal folkaren jarraitzaileak direnek edo irlandar kultura maite dutenek erreferentzia asko aurkituko dituzte kontzertuan zehar. Hori guztia, festa giroarekin eta gure emanaldiarekin nahastuta eskainiko dugu. Beraz, ezin duzue emanaldi hau galdu eta denak animatzen zaituztegu kontzertura etortzera, egurra ematera baikatoz.

## Elkarrizketa hau amets doinuz agurtzeko, talde bezala, munduko zein eszenatokitan aritzea gustatuko litzaizueke?

Folkésik zerbait berezia badu da nahiko ameslariak garela. Gure helburuak beti nahiko goian jartzen ditugu, baina gure estiloari egokituta, dudarik gabe, gure ametsa Irlandan barrena bira bat ematea izango litzateke. Bertan daude gure erroak, hau da, Dublineko edo Galwaygo pubetan ematen diren kontzertuetan. Esaterako, St. Patrick's egunean kontzertu bat ematea izugarria izango litzateke. Bestela, gure taldea jaialdi handitan ikusten dugu, beraz, gustatuko litzaizueke Viña Rocken estiloko festival baten parte izatea, milaka pertsona gure abestiak dantzatzen eta gozatzen ikusteko; horrek ez luke preziorik edukiko guretzako.

**“Kontzertuetan talde hurbila izan ohi gara, abestiak ezagunak direlako eta erritmoek dantzatzera gonbidatzen dutelako”**



ZURE OSASUNA, GURE LEHENTASUNA

FISIOTERAPIA - ERREADAPTAZIOA - NUTRIZIOA - PSIKOLOGIA

Hondarribia kalea, 34W | (+34) 623 00 73 21 | info@aurreraklinika.com | www.aurreraklinika.com



DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK

MAILA GUZTIAK | H.A.B.E TITULU OFIZIALAK

AZTERKETEN PRESTAKUNTZA (HIZKUTZ ESKAKIZUNAK | IVAP | IRALE)

ON LINE IKASKUNTZA | GURASO TALDEAK

San Juan Arria Plaza, 4 | (+34) 943 63 52 66 | herrijakintza@gmail.com

*Gora San Martzial!*

# BIDASOAKO ERRALDOIAK

## BIDASOAKO ERRALDOIAK: BALS ETA ERRITMO PROPIOZ BLAITUTAKO FAMILIA HANDIA

Bidasoaldeko kaleak alaitasunez, kolorez eta magia betetzen dituen elkarteetako bat da Bidasoako Erraldoiak taldea, zalantzarik gabe. Gaur egun Irunen eta inguruko herrietan ezinbesteko erreferentia da erraldoien munduan. Talde honen sorrera eta bilakaera ezustekoz eta borondatez betetako bidaia izan da. Jose Irigoyen elkarteko presidentearen hitzetan, konpartsa hau ez da soilik irudi handien multzo bat; familia bat ere bada, 220 bazkidez osatutako motorra, eta, batez ere, haurren begietan pizten den ilusioaren zaindaria.



"ZURE ORDEZ  
SUKALDATUKO DUGU"  
JANARIA ERAMATEKO PREST  
—  
(+34) 943 613 670  
WWW.JUNKALTXO.NET  
BLAS DE LEZO KALEA 22 - BEHEA  
20301 IRUN

Aral  
Quiromasaje  
MASAJE ON BAT MEREZI DUZU  
www.aralquiromasaje.com  
Larretxipi Kalea 17 | (+34) 643 26 92 76

**BIDASOAKO ERRALDOIAK**

Bidasoako Erraldoiak 1989an sortutako kultur elkarte da, hamarkada hauetan Bidasaldeko jai giroaren ikur bilakatu dena. Txaranga xume gisa jaio bazen ere, gaur egun 16 erraldoiez osatutako konpartsa indartsua da, haur, gazte eta helduentzako egitura mailakatu duena. Taldearen arrakasta belaunaldien arteko transmisioan eta publikoarekiko hurbiltasunean oinarritzen da, 200 bazkide baino gehiagoren lanari esker. Bere helburu nagusia herri kultura eta erraldioen tradizioa modu dinamiko eta parte-hartzailean bizirik mantentzea da.

Elkartearen bilakaera arakatzeko, ezinbestekoa da 37 urte atzera egitea, 1989ko martxoaren 15era arte. Egun hartan sortu zen ofizialki Bidasoako Txaranga Kultur Elkarte. Irigoyenek gogorarazi duen bezala, elkartearen izen ofizialak oraindik ere bere jatorri musikala gordetzen du. Hasiera haietan, proiektua ez zen erraldoi konpartsa bat. EKT (Euskal Kultur Taldea) elkartearen izandako zatiketa baten ondorioz, lagun talde batek txaranga bat sortzea erabaki zuen, festa eta giro ona ardatz hartuta.

Urteak pasatu ahala, txarangarekin parrandan eta emanaldietan zebiltzala, kideek zerbait gehiago behar zutela nabaritu zuten. “Goazen erraldoiak egitera”, pentsatu zuten unerren batean. Hasiera hartan bi irudi soilik egin zituzten, eta orduan hasi zen gaur egungo konpartsaaren ernamuina. Inork gutxi pentsatuko zuen, txaranga xume hartatik abiatuta, hiru hamarkada geroago 16 irudiko talde indartsua eta 220 bazkideko egitura izango zutela. Bilakaera ikusgarria izan da, hasierako asmo haiekin alderatuta.

**Lau bloke, 16 erraldoi**

Gaur egun, Bidasoako Erraldoiak konpartsa lau bloke bereiztan banatuta dago, eta egitura hau da, hain zuzen ere, bere arrakastaren gakoetako bat. Lehenengo blokean “Erraldoi Handiak” daude: arrantzale bikote bat eta galdaragile bikote bat. Hauek dira ikusgarrienak, lau metro eta erdi neurtzen dutenak eta 50 kilo inguruko pisua dutenak. Irudi hauek konpartsaaren bizkarrezurra dira, indar eta dotorezia handiena eskatzen dutenak.

Bigarren blokea “Erraldoi Ertainen” osatzen dute. Irudi hauek natura elementuak irudikatzen dituzte: Lurra, Sua, Ura eta Haizea. Hirugarren blokean “Erraldoi Txikiak” daude, lau urtarok ordezkatuz: Udaberria, Uda, Udazkena eta Negua. Eta, azkenik, taldeko kide berrienak eta txikiak: lau Galtzagorri. Hauek basoko lanbide eta pertsonaiei lotuta daude (egurgilea, lorezaina, meatzaria eta magoa), eta haur txikiak dantzatzeko diseinatuta daude, haien neurria eta izaerara egokituta.

**Hutsetik osotasunera**

Duela urte batzuk, elkarteak krisi sakon bati aurre egin behar izan zion: ez zegoen dantzari gazterik. Lau erraldoi handiekin ateratzen zirenean, askotan sei pertsona besterik ez ziren joaten irudi guztiak mugitzeko. Horrek esan nahi zuen dantzari bakoitzak atsedeenik gabe aritu behar zuela, eta saioak amaitzean

**“Batzuk etxean propio sortutako erraldioen erreplikekin joaten ziren entseguetara, dantzari nagusien mugimenduak imitatuz”**

jendea “lehertuta” geratzen zela. Jose Irigoyenek, oraindik zuzendaritzako kide ez zela, apustu ausart bat proposatu zuen: erraldoi txikiak sortzea harrobia sortzeko.



Hasieran bi irudi egin ziren (Udaberria eta Uda), eta arrakasta berehalakoa izan zen. 12-14 urteko gazteak hurbiltzen hasi ziren. Hala ere, Irigoyenek eta bere lantaldeak arazo berri bat atzeman zuten: 14 urteko ume batek ezin zuen bat-batean 4,5 metroko erraldoi batera salto egin. “Hutsune” bat zegoen pisuaren eta altueraren artean. Hori dela eta, erraldoi ertainen blokea sortzea erabaki zuten. Horrela, 18-20 urte bitarteko gazteek elkarteari lotuta jarraitzea lortu zuten, pixkanaka handietara pasatzeko prestatzen ziren bitartean.

Konpartsaaren zikloa ixteko, azken erronka Galtzagorriak izan ziren. Entseguak jendeari ireki zizkionten, Irigoyenek “babarrun” deitzen dituen haurrak —hiru eta sei urte artekoak— egunero han zeudela ikusi zuten. Ume hauek koreografia guztiak buruz zekizkiten, konpartsa sare sozialetara igotako bideoak behin eta berriz ikusten zituztelako. “Batzuk etxean propio sortutako erraldioen erreplikekin joaten ziren entseguetara, dantzari nagusien mugimenduak imitatuz”, adierazi du José Irigoyenek.

Pandemiaren ondorioz Galtzagorrien aurkezpena urtebetez atzeratu bazen ere, irteera egin zutenean erabateko “boom” bat izan zen. Gaur egun, 40 edo 50 haur inguru daude prest irudi hauekin ateratzeko, eta askok oraindik ez dute arnesera iristeko altuerarik ere, baina gogoz gainezka daude. Horrela, Bidasoako Erraldoiek lortu dute haur batek 4 edo 5 urterekin hasi eta, bizitzako etapa desberdinak igaro arren, elkartearen beti leku bat

**“Ez baitu zerikusirik pisurik gabe dantzatzek edo 50 kiloko irudi batekin orekari eusteak”**

izatea.

**Itzaleko lana**

Jendeak kalean erraldoiak dantzan ikusten dituztenean, askotan ez da ohartzen atzean dagoen azpiegitura eta lan kargaz. Irigoyenek azpimarratzen duenez, saio bakoitzaren aurretik mantentze lan handia egin behar da. Irudiak garraiatzean, kolpatzean edo dantzatzean, kalte txikiak jasaten dituzte oihaletan edo egituretan, eta horiek guztiak konpondu egin behar dira hurrengo irteeraren aurretik.

Gainera, antolakuntza lanak ere itzelak dira: udaletxeekin hitz egin, ibilbideak adostu, baimenak eskatu eta aseguruaren ardura hartu. Irteera egunetan, saioa hasi baino ordu pare bat lehenago joaten dira pabiloira furgoneta kargatuak hartu, eta gero, dena muntatu behar den lekura joateko. Behin kalejira amaituta, lana ez da bukatzen; dena berriro desmuntatu eta jaso behar da. Lan isil hori guztia funtsezkoa da gero herritarrek ikuskizunaz gozatu dezaten.

Bidasoako Erraldioen bereizgarrietako bat beraien koreografiak dira. Horiek ez dira kasualitatearen fruitu; Irunen Errotako Errepidean dagoen pabiloian egiten dituzte entseguak, udalak utzitako espazio batean. Bertan, ordu asko sartzen dituzte: lehenengo erraldoi gabe, mugimenduak eta pausoak ikasteko, eta gero pisuarekin. José Irigoyenek azaldu duenez, “ez baitu zerikusirik pisurik gabe dantzatzek edo 50 kiloko irudi batekin orekari eusteak”.

**“Guk musikaren bidez bizia ematen diegu irudiei”**

Interesgarria da nola entsegu hauek ere herri-ekintza



ZURE TABERNA IRUNGO ERDIGUNEAN  
GOSARIAK - BAZKARIAK - AFARIAK

Zabaltza plaza 8 | (+34) 943 02 06 24



AURREKONTUA ESKATU!

ERREFORMA OROKORRETAN ETA BARNE DEKORAZIOAN ADITUAK

Pol. Talaia Pab 8A, Oiartzun | 943 55 81 04 | info@larranaga-proiektuak.com | www.larranaga-proiektuak.com

Jarraitu: @ f

**“Jende hori gabe, gu ez gara ezer”**

bilakatu diren. Ostiralero jende asko hurbiltzen da bertara, bazkide izan ez

arren, haurrak erraldoiak ikustera eramateko. Irigoyenek dioen bezala, “sarrera kobratu beharko genuke”, hainbeste jende biltzen baita. Giro alai izaten da, eta haurrak dantzari nagusien ondoan ikusten dira pauso berdina ematen. Lan horrek guztiak, azkenean, fruitua ematen du kalean, dena koordinatuta eta polit irten dadin.

Konpartsa honek maiz jaso duen kritika bat zuzeneko musika (gaiteroak edo txistulariak) ez erabiltzea da. Jose Irigoyenek, Carcastillokoa izanda eta gaiteroen doinuekin hazitakoa izanik, ondo daki zein den tradizioa, baina arrazoi ekonomiko eta logistiko sendoak ematen ditu. 16 irudi dituen konpartsa batean, gutxienez zortzi gaitero talde beharko lirarteke irudi bakoitzeko soinu egokia bermatzeko. Horrek suposatuko lukeen kostua ezin du inolako udaletzek edo elkartek bere gain hartu.

Horregatik, musika grabatua erabiltzearen aldeko apustua egin zuten. Horrek, gainera, malgutasuna ematen die: doinu tradizionalak eta modernoagoak nahasten dituzte. Irigoyenek nabarmendu duenez, askotan beste konpartsa batzuen ondoren doazenean, jendea estatikoago dagoela ikusten da, baina haiek beren musika eta martxarekin iristean, jendea dantzan hasten da. “Guk musikaren bidez bizia ematen diegu irudiei”, dio presidentek. Hori da haien zigilua, eta jendearen erantzuna ikusita, bide onetik doazela uste dute.

#### Konpartsa benetako motorra

“Jende hori gabe, gu ez gara ezer”, dio Irigoyenek hunkituta. Bidasoako Erraldoiek jarraitzaile legio bat dute, ez bakarrik Irunen, baita urrunago ere. Madril, Bartzelona, Soria edo Iruñetik etortzen den jendea badagoela aipatzen du, haiek non egongo, han agertzen direnak. Hori lortzeko gakoa hurbiltasuna izan da. Beste konpartsa batzuk itxiagoak diren bitartean, Bidasoakoak oso irekiak dira: haurrei erraldioen barruan sartzen uzten diete eta familia osoarekin elkarrengaitan dute.

Hurbiltasun horrek onura bikoitza dakar. Alde batetik, haurrak konpartsa erakartzen ditu, etorkizuneko dantzariak izan daitezten. Bestetik, publiko leial bat sortzen du, haien saio guztietan babesa ematen diena. Irigoyenerentzat, konpartsa ematen dion saririk handiena ez da ekonomikoa —irabazi asmorik gabeko elkarte baitira—, baizik eta kalean jendeak ematen dien maitasuna eta haurren aurpegietan ikusten den poztasuna.

Gaur egun elkarteak 220 bazkide ditu. Logistikoki, saio bakoitzean 55 eta 60

**“Erraldoiaren “gonapean” sartzen zarenean mundua desberdin ikusten da”**

pertsona artean mugitzen dira. Talde honen barruan denetarik dago: erraldoiak eramaten dituzten dantzariak, musika ekipoaz arduratzen direnak, haurrak zaintzen dituztenak eta laguntzaileak. Koordinazioa funtsezkoa da dena ondo irten dadin, batez ere kontuan hartuta urtean 30 eta 40 irteera artean egiten dituztela (San Martzialak edo Inauteriak bezalako jaiak irteera bakartzat hartuta, baina egun bakoitza berez saio bat delarik). Irigoyenek dioen bezala, “erraldoiaren “gonapean” sartzen zarenean mundua desberdin ikusten da”. Barrutik bizitzea esperientzia paregabea dela ziurtatu digute, harrigarria omen da, eta horregatik daukate hainbeste jende parte hartzeko gogoz.

#### San Martzialak eta etorkizuna

Iazko San Martzialetan udalak egindako apustuak, jaiak auzoetara zabaltzeko eta saio gehiago egiteko apustuak, alegia, arrakasta itzela izan zuen. Bidasoako Erraldoiak ezinbestekoak izan ziren giro hori zabaltzeko. Aurten ere, bide beretik joatea espero dute. Oraindik irteera egunak zehazki itxi gabe badaude ere, jaien aurreko astean auzoetan bi irteera egitea aurreikusten dute, eta behin jaiak hasita, beste hiru bat saio.

Etorkizuneko erronkei buruz galdetuta, Irigoyenek argi dauka: “helburua konpartsa gaur egungo mailan mantentzea da”. Ez dute irudi gehiago egiteko asmorik, momentuz taldea osoa eta orekatua ikusten dutelako. Erronka handiena dantzari taldea egonkor mantentzea eta herritarren maitasunari eustea da. Ez da erraza halako egitura bat kudeatzea, pertsona bakoitzak bere bizitza, lana eta ikasketak dituelako, baina elkartearen grinak oztopo guztiak gaintzen ditu. 37 urteko historia honen ostean, konpartsa bizirik jarraitzen du, inoiz baino indartsuago,

**“Helburua konpartsa gaur egungo mailan mantentzea da”**

Bidasoako Erraldoiak ez baitira soilik egurra eta oihala; Irunen eta Bidasoaldearen arimaren eta nortasunaren parte dira.

#### ERRALDOIAK

**Galtzagorriak:** Lorezaina, Egurgilea, Magoa eta Meatzaria.

**Erraldoi txikiak:** Udaberria, Uda, Udazkena eta Negua.

**Erraldoi ertainak:** Haizea, Lurra, Ura eta Sua.

**Erraldoi handiak:** Arrantzale neska eta mutila eta Ijito neska eta mutila.

#### KLASEAK

MULTIGYM - LURREKO PILATESA  
MAKINAKO PILATESA - BODY GYM  
LUZAKETAK ETA MUGIKORTASUNA  
SEVILLANAK

Tel. 678 493 079 - 943 611 401- 943 614 889



# UHINEN MAGIA SAN MARTZIAL MENDIAN: IRUNGO IRRATI- AMATZAILEEK HITZORDUA DUTE EKAINAREN 27AN

San Pedro eta San Martzial jaiak hurbildu ahala, Irunek ohituraz, dantzaz eta kolorez betetzen ditu bere kaleak. Alabaina, jai egitarau zabalaren barruan, bada urtez urte errepikatzen den eta oraindik herritar askorentzat ezezaguna den hitzordu berezi bat: San Martzial mendian egiten den irratizaleen erakustaldia. Aurten, ekainaren 27an izango da ekitaldia, goizeko 9:00etatik aurrera, eta uhinen bidez Irungo jaien oihartzuna mundu osora zabaltzea izango du helburu.

Ekitaldi honen nondik norakoak eta eskualdeko irradi zaletasunaren egoeraren berri eman digute Víctor Vázquez, URE Bidasoa (Espainiako Irratizaleen Batasuna) ataleko presidentea, eta Luis Herraiz, Bidasoko Irratizaleen Elkarte (URB) burua. Bi elkarteek elkarlanean dihardute uhinen magia bizirik iraun dezan.

Mendira igotzearen arrazoia argia da Víctor Vázquezentzat. Alde batetik, jaiak estatu mailan eta nazioartean ezagutarazteko modu bikaina da. Bestetik, barne kohesiorako tresna indartsua dela azaldu du: "Irratizaleen askotan, etxean bakarka gauzatzen den jardura izaten da. Ekintza honek aukera ematen digu denok elkartzeko, aurpegiak ikusteko eta zerbait elkarrekin egiteko". Hirugarren helburua herritarrengana gerturaztea da, norbaiti "harra piztu" eta taldera batzera anima dadin.

Erakustaldian, irradi estazioak eta antenak muntatzen dituzte

San Martzial gainean. Urtero bezala, aurten ere komunikazioak egiteko identifikazio berezi bat eskatu dute: EH2SM. Uhinen bidez harremanetan jartzen diren lagun guztiei kontaktu hori ziurtatzeko QSL txartela bidaltzen diete. Txartel horren aurrealdean Irungo jaien kartela agertzen da, eta atzealdean, konexioaren datu teknikoak biltzen dituen koadrikula. Modu horretan, Irungo jaien irudia munduko bazter guztietara iristen da irradi konexioei esker.

## Bi elkarte, baina helburu bera

Luis Herraizek azaldu duenez, Bidasoaldean bi egitura administratibo dituzte, baina helburu berarekin lan egiten dute. URE estatu mailako elkarte indartsua da, Madrilen azpiegiturak eta nazioarteko ordezkariak dituena, eta Víctor da Bidasoako eskualdeko burua. URB, berriz, 2009an sortu zuten Irun eta Hondarribian, IFK propioarekin, baliabideak modu lokalean eta malguagoan kudeatzeko.

Gaur egun, elkarte bietan 22 bazkide inguru biltzen dira. Zenbaki makroa ikusita, Espainian 20.000 lizentzia inguru daude, eta horietatik 8.000 UREko kide dira. Herraizen kalkuluen arabera, bi elkarte hauen artean Bidasoaldean lizentzia duten irratizaleen % 50 inguru ordezkaten dute. Zaletasun horrek, ordea, arronka handiak ditu gaur egun. Internet eta telefonia mugikorren sinpletasunak irratia gizarteari ematen zion "zerbitzu" eta

**"Okerrera pasatu dela dirudi, jendea pixkanaka irratizaleen artean itzultzeko animatzen ari da"**

*Víctor Vázquez, URE Bidasoako lehendakaria*

berehalakotasun zati bat itzali du. Hala ere, Luis Herraizek argi du: "Irratiaren magia hor jarraitzen du, hori ezabaezina da".

**Gazteengana iristeko zailtasunak**

Irratizaleen erakustaldia San Martzialago hitzordua topaketa klasiko bat da, Vázquez kideak duela 15 urte baino gehiago abiatua. Baina bi elkarrizketuek aitortu dute belaunaldi arteko erreleboa zaila dela. Herraizek gaineratu du erro tekniko edo borondatezko izaera duten zaletasun askotan gertatzen den arazoa dela. Zaletasuna pizteko, hitzaldiak ematen dituzte eskualdeko eta kanpoko Lanbide Heziketako zentroetan, gai teknologikoekin lotutako ikasgaietan. Baina 16-18 urteko gazteengana iristea ez da erraza: "Eurentzat Internet jainkoaren graziaz erori dela dirudi. Ez diote magiarik ikusten. Zaletasun bat pasioaren eta magiaren nahasketa da; magia topatzen ez badiozu, zaila da zaletasun bilakatzea".

Hala ere, baikortasunerako tartea badago. Erretiratu ari den jende asko, gaztetan irratia ukitu zuena eta orain denbora zein egoera ekonomiko lasaiagoa duena, zaletasunera itzultzen ari da. "Okerrera pasatu dela dirudi, jendea pixkanaka irratizaleen artean itzultzeko animatzen ari da", gaineratu du Víctor Vázquezek.

**Ekainaren 27ko Erakustaldia**  
San Martzial mendia leku estrategikoa da: altuerak kontaktatuak errazten ditu eta bertara igotzen dena espresuki irradi-amatzaileak ikustera doa. Goizean goizetik antenak eta tresneria muntatzen dituzte. Luis Herraizek dioenez, karpa muntatzea bera ikuskizun bat izaten da: "Monty Pythonen pelikula bat dirudigu, bi edo hiru aldiz egin behar izaten dugu eta!".

Muntaketa amaitutakoan, irradi bidezko deiak hasten dira. Konexioak uhinen hedapen gaitasunaren edo propagazioaren

araberakoak izaten dira. Normalean, estatu mailan, Frantzia eta Portugalen entzuteko frekuentziak erabiltzen dituzte (250 eta 900 kilometro artekoak). Baina badira egun bereziak: "Egun onetan, bat-batean, Finlandiatik erantzuten dizute, edo errusiarrak Donostiakoak baino ozenago entzuten dituzte, uhinak kapritxosoak direlako". Anekdoten artean, ekaitzei eta enbatei aurre egiteko karpari heldu beharreko uneak edo taldeko bazkari politikak gogoratzen dituzte.

Herritarrei beldurra galtzeko eta hurbiltzeko deia egin diete. Antenen uhinen inguruan egon diren manipulazio eta bulo edo gezurrak uxatu nahi dituzte. "Garrantzitsua da jendeak ikustea hirian ia 80 pertsona gaudela gure kabuz komunikatzeko gai garenak, ez bakarrik teknikoki, baita trebetasunez ere. Hori larrialdi kidegoek edo militarrek bakarrik daukate. Bizitza zibilean, gu bakarrik gaude. Hari zati bat antena bat dela eta horri esker mundu erdiarekin hitz egin dezakezula erakutsi nahi diegu", azaldu du Luis Herraizek.

## Etorkizuneko erronkak

Luzera begira, bi elkarten helburua elkarrekin lanean jarraitzea da, bazkide izaeraren gainetik irratizaleen artean bera defendatuz. Ziurrenik laster, Udalak utzitako lokal berri eta emblematikoki bati esker, euren jardura Irungo erdigunera eta Bidasoa ibaira hurbiltzea espero dute. Horrela, Hondarribiko jaietan kirol portuan egiten duten bezala, jendearen pasabidean egongo dira eta ez dute San Martzialera igo beharko erakustaldian herritarrengana iristeko.

Era berean, REMER edo EMCOM bezalako irradi larrialdi sareekin eta Irungo Babes Zibilarekin elkarlana sakontzen jarraituko dute. Izan ere, irratizaleak izan ziren egungo Babes Zibilaren ernamuina. Ekainaren 27an, beraz, aukera bikaina egongo da San Martzialen bertan teknologiaren, historiaren eta gizakien arteko komunikazioaren magia gertutik ezagutzeko.



**BB BADOA**  
BIZIKLETA BIZITZA DA

BIZIKLETA BIDEZKO BANAKETA · ALOKAIKURUA · DEMDA  
REPARTO EN BICI · ALQUILER · TIENDA

+34 943 099 647 Santiago, 49, Irun  
+34 722 653 643

badoa@badoa.eus | badoa.eus | @badoa\_bb

**zenturia**  
Asistencia Domiciliaria · Productos & Servicios  
Elvesz Elveko Laguntza · Produktuak & Zerbitzuak

URANZU 3 - IRUN  
(+34) 943 63 90 49

SAN FRANCISCO KALEA 45 BAXU - DONOSTIA  
(+34) 674 62 22 11

**AUNTXA TRIKITIXA ESCOLA**  
TRIKITIXA ETA PANDEROA

6 URTETIK AURRERAKO HAUR ETA HELDUENTZAT ZUZENDUTA  
IKASTEKO METODO DESBERDINAK:  
ZENBAKIZ OSATUTAKOAK - AURREZ-AURRE - SOLFEOZ

Aldabe Mendia Kalea, 31 | 943 61 88 39 - 615 79 05 10 | info@auntxatrikitieskola.com | info@auntxatrikitieskola.com

*Gora San Martzial!*



**ETORRI ETA GOZATU ZURE LAGUN ETA SENIDEENTZAKO GIRO ATSEGINAZ**

KARTA • EGUNEKO MENUA • PLATER BEREZIAK • PAELLAK • PINTXOAK  
ERRAZIOAK • OGITARTEKOAK • HANBURGESAK • HAURREN MENUA

Anzaran plaza, 14, Irun, Gipuzkoa | 943 664 897 / 684 802 482 | www.pikarorestobar.com



**all4móvil**  
Asesoría en telefonía y comunicación

LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN

Puiana kalea 30 behea | 652 11 85 97 / 843 63 08 80 | all4movil@all4movil.com | www.all4movil.com



**ARAMBURU**

ZURE LEIHO-FABRIKATZAILEA IRUNEN - 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU SEKTOREAN.  
LEIHO, ATE, BARANDA, PERTSIANA ETA TOLDOAK INSTALATZAILE ONENEN BERMEAREKIN

Gabiria Kalea 42, Irun | (+34) 943 62 22 57 | info@ventanasaramburu.com | www.ventanasaramburu.com



**mr**  
electric systems

ZERBITZU ELEKTRIKO GUZTIAK ESKURA IZANGO DITUZU

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK - NEURRIRA EGINDAKO ARGIEI AZTERKETA - DOMOTIKA ETA AUTOMATISMOAK  
BIDEO ZAINZAK ETA ALARMAK - AHOTSA ETA DATUAK - PROIEKTUAK ETA LEGEZTATZEA - MANTENTZE LANAK

info@mrelectricsystems.com | (+34) 669 30 23 12



**Garbi goxo**

ZURE KONPONBIDE INTEGRALA

GARBI GOXON, ZURE BIZITZA ERRAZAGO EGITEN DUGU

GARBITEGIA - MASKOTA GARBITEGIA - TXAKUR-ILEAPAINDEGIA - VENDING 24H

EGUNERO IREKITA 8:00ETATIK 22:00ETARA

Puiana Kalea 18 | 621 15 09 79 | www.garbigoxo.com | info@garbigoxo.com



**Descansalia**

ZURE ATSEDENA, GURE LEHENTASUNA


KONPROMISORIK GABEKO EROSOTASUNA - KONFIANTZAZKO MATERIALAK - ARRETA PERTSONALIZATUA

Luis Mariano kalea 2 | (+34) 666 35 97 08 | info@descansalia.com



DENBORA-PASAK

Gurutzegrama: Irungo leku ezagunak



Horizontal

- 2- Irungo iragan erromatarra ezagutzeko museo eta aztarnategi ospetsua.
- 3- Irun eta Hendaia banatzen dituen ibaia.
- 4- Frantziarako bidean dagoen nazioarteko zubiarekin lotutako izena..
- 6- Hegazti eta naturagatik ezaguna den parke ekologikoa.

Bertikal

- 1- Azoka eta ekitaldi handiak egiten diren Irungo erakustazoka.
- 5- Antzerki eta kultur ekitaldi ugari hartzen dituen gunea.

6 Hitz: Filosofoak

F	M	T	U	L	L	B	K	Q	N	Z	V	Q	I
K	D	D	F	G	T	I	E	X	T	Z	G	K	A
M	X	E	K	A	N	T	P	Y	X	E	U	V	E
F	Q	M	S	J	N	H	U	C	E	W	S	D	F
O	I	P	D	C	J	U	N	S	C	Q	C	B	V
G	J	I	P	F	A	A	I	R	W	Z	U	O	D
A	H	C	C	M	M	R	G	P	P	H	A	X	K
P	Q	O	H	S	W	D	T	H	V	B	U	M	U
B	L	S	O	K	R	A	T	E	S	R	I	C	R
O	B	A	B	H	L	P	K	G	S	O	G	N	Y
S	H	G	T	K	F	L	V	E	W	N	O	U	X
R	N	M	M	O	N	I	E	T	Z	S	C	H	E
I	K	X	N	R	N	C	T	C	L	G	Z	Y	O
L	A	R	I	S	T	O	T	E	L	E	S	H	R

- Sokrates
- Aristoteles
- Kant
- Platon
- Nietzsche
- Descartes



MUGA

Doinua: Itsasoa laino dago  
Egilea: Abel Zabala Elizazu

- 1 Nahiz eduki hainbat duda gainditu dut abentura jolasteko hitza "MUGA" aldi hontan tokatu da jolasteko hitza "MUGA" asmatuko al nuen ba!
- 2 MUGALARI zein MUGAZAIN berdin lehen berdin orain bista jarriz elkarrengain nor egoten da noren zain? Bista jarriz elkarrengain elkar zaintzen dute bikain.
- 3 MUGAZAIN zein MUGALARI biak daude adi adi ibili behar bai da argi aurre hartu sorpresari ibili behar bai da argi gain hartzeko besteari.
- 4 Euskararen aldarria nahiz eta ez den berria behin ta berriz jazarria egoera da larria behin ta berriz jazarria jar dezagun MUGARRIA.
- 5 Diruaren merkatua jarduera MUGATUA aberatsek gidatua behartsua zanpatua aberatsek gidatua badago non banatua.
- 6 Palestina, Libano\_Iran suntsituak ta JOMUGAN mundu hontako tesituran terrorezko pelikulan mundu hontako tesituran bakerik ez HORTZIMUGAN
- 7 Adimena zein jakintza berrasmatur badabiltza eta hauxe da emaitza hortik ez al dator gaitza? eta hauxe da emaitza bihurtu da MUGAGAITZA
- 8 Zortzi bertso orotara hau zen nire harrikada zenbat buelta, zenbat traba tolestu ezin metrikara zenbat buelta zenbat traba iritsi naiz HELMUGARA.



Erantzunak webgunean:  
[www.irunero.eus/denborapasak/](http://www.irunero.eus/denborapasak/)



KIROLAK

## TXINGUDI ESKUBALOIAK EMAKUMEZKOEN SAN MARTZIAL TORNEOA ANTOLATU DU DENBORALDIA BOROBILTZEKO

Txingudi Eskubaloi taldeko kideek denboraldia bukatu berri dute, baina ez beraien jarduna. Izan ere, ekainean, Sanmartzialen atarian, txapelketa bat antolatu dute, Emakumezkoen San Martzial Eskubaloi torneoa. Orain, txapelketa horren prestaketa lanetan murgilduta dauden bitartean, Oier Dorransoro, Nahia García eta Nerea Blancok, denboraldiaren balantzea egin eta txapelketaren xehetasunak aurreratu dituzte.

### Nola joan zaizue aurtengo denboraldian?

**Nahia:** Denboraldia amaitu dugu eta, gure ustez, oso denboraldi polita egin dugu. Denboraldi hasieran markatu genituen helburuak lasai aski bete ditugula uste dut. Beraz, orain denboraldia guztiz amaitu aurreko momentuz gozatzea geratzen zaigu.

### Zehazki, zeintzuk ziren hasieran markatutako helburuak eta nola landu dituzue denboraldian zehar?

**Oier:** Helburu bezala markatu genuen igoera fasean sartzea, fase hori jokatzea nahiko polita baita. Lortu dugu eta, gainera, puntu batzuk soberan izan ditugularik, beraz, alde horretatik nahiko pozik gaude. Talde bezala, beste helburuetako bat talde izaera hori lantzea zen, elkarrekin zerbait eraikitze eta hori ere lortu dugula esango nuke.

### Nola moldatu zarete jokalar berriekin taldea osatzeko?

**Nahia:** Jokalariez gain, aurten entrenatzaile berria ere izan dugu, beraz, denek elkar ezagutzeko tartea izan dugu. Jokalari zaharrak garenok jokalar berriak beso zabalik hartu ditugu, baita entrenatzailea ere, beraz, haiek hori bera sentitu izana espero dut. Dinamika oso polita lortu dugu, nahiz eta adin desberdinetakoak izan, oraindik denak gazteak garelako, eta afariak eta guzti antolatu ditugu, gainera.

**Oier:** Nik aurretik mutilak entrenatu izan ditut, ondorioz, denboraldi hasieran konturatu nintzen oso ezberdina dela neskak eta mutilak entrenatzea, espero ez nuen zerbait. Egokitzea apur bat kostatu zaidan arren, azkenean moldatu naiz eta ondo aritu gara dela esan daiteke.

**“Denboraldi hasieran markatu genituen helburuak lasai aski bete ditugula uste dut”**

*Nahia García, Txingudi Eskubaloioko jokalaria*

### Pixkanaka eskubaloira neska gehiago gerturatzen direla nabaritu duzue?

**Nerea:** Gure taldea oso jokalar gutxiarekin hasi genuen lehen urtean, hau da, entrenamenduetan 6 edo 7 jokalarirekin soilik, beraz, hasiera oso zaila izan zen. Orain, pixkanaka gehiago garelako nabaritzen da eta nabari da emakume gehiago animatzen direla jokatzerara, baita kategoria txikiagoetan ere. Senior taldearekin hasi ginen, eta orain kadeteen taldea ere badugu.

**Nahia:** Geroz eta neska gehiago ari da etortzen. Egia da jendea kirol berri batean hastea asko kostatzen zaiola eta bereziki aurten asko ikusi dugun zerbait izan da. Lehen Eskola Kirolari esker lehenago hasten ginen eta hortik baten bat geratzen zen klubean. Aurten eskolaz eskola joan behar izan gara galdezka, jendea falta zitzaigulako, bereziki kadeteen mailan. Jokalari berriak erakartzeko DBHkoen adinean zentratu gara, oraindik LHn oso txikiak direla esaten digutelako zuzenean haien bila joateko. Horretaz gain, denetarik egin dugu: kartelak egin ditugu, publizitatea jarri dugu eta eskoletara joan gara zuzenean. Beraz, klubak jendea bilatzeko ahalegin hori egitea ezinbestekoa da, bestela, jendea ez delako animatzen pausua



### “Senior taldearekin hasi ginen, eta orain kadeteen taldea ere badugu”

*Nerea Blanco, Txingudi Eskubaloioko jokalaria*

ematera. Bestetik, ekaineko txapelketa lagungarria izan daiteke, jende asko gerturatzen baita eta agian norbait jokatzerara ere animatu daiteke horrela. Errazena, lagunen bat edo ezagunen bat eskubaloian hastea da, horrela lagunak erakartzea errazagoa delako.

### Zeintzuk izan dira aurtengo denboraldian zuen abantailak eta desabantailak?

**Oier:** Esango nuke talde bezala, nahiko indartsuak gara. Defentsa lanetan oso ondo ibiltzen gara eta hori da nire ustez gure indargunea. Baina, korrika asko egiten duten taldeen aurka jokatzen dugunean, aldiz, zailtasun handiagoak izaten ditugu eta ondorioz, trantsizio horietan baloi asko galtzen ditugu. Gainontzekoan, taldea indartsu ikusten dut.

### Ekainerako prestatzen ari zaren txapelketari dagokionez, nolako formatua izango du?

**Nerea:** Ekainaren 13an, larunbatean, egingo dugu txapelketa. Bertan 4 talde senior eta 2 talde kadete lehiatu dira. Parte hartuko dugun talde seniorrak Hendaia, Coraz, Durango eta Txingudi izango gara eta kadeteetan berriz, Coraz eta Txingudiko taldea. Partidu guztiak Artalekun jokatuko dira, goizean zein arratsaldean.

**Nahia:** Eguerdian gure familiek prestatutako bazkariak gozatuko dugu, izan ere, bazkaltzera gonbidatuko ditugu txapelketa jokatzerara etorri izana eskertzeko. Bazkaldu ostean, finalerdiak eta finala jokatuko dira. Kadeteen mailan aldiz, partiduak txapelketa izaera ez badu ere, beraiei ere jolasteko aukera eskaini nahi diegu, publikoa gerturatuko dela aprobetxatuz.

**Txapelketaren antolaketak erakusten du zeinen garrantzitsua**

### den boluntarioen lana zuena bezalako klubetan.

**Oier:** Azkenean, oso klub txikia gara eta denen parte-hartzea eta laguntza beharrezkoa da ekintzak aurrera eramateko.

**Nahia:** Bide batez, aipatu nahiko genuke, txapelketa ikusteko sarrera doakoa dela, beraz, nahi duen guztia gerturatu daiteke. Aurtengo txapelketaren V. edizioa izango da. Hasieran txapelketan talde gehiagok parte hartzen bazuten ere, azken urteetan tartetxo bat eskaini diogu klubeko talde inklusiboari ere, hori baitzen hasieran jokatzearen aukera bakarra, Barakaldoren aurka aritzeaz gain. Orain beraiek beren txapelketa propioa dute, Taupada txapelketa, beraz, beren kabuz jokatzen dutenez, orain kadetei tartea utzi diegu.

**Nerea:** Azken hiru urteetan talde egokitu gehiago sortu dira, esaterako, Ereintzan edo Zarautzen, eta gauzak horrela, aurten lehen aldiz txapelketa bat jokatzearen aukera izan dute. Liga moduko bat jokatuko dute Barakaldo, Zarautz, Ereintza eta Txingudikoek eta oso ondo joan da. Maiatzaren 18an Euskal Kopa jokatuko zuten eta Oñatin aritu ziren lehian denak elkarrekin.

### Epe luzera, klub bezala, zeintzuk dira zuen erronkak edo datorren denboraldirako helburuak?

**Nahia:** Gure helburu nagusia klubak bizirik jarraitzea da eta jendeak bertan, behintzat, beste pare bat urte jarraitzea txapelketak jokatzen jarraitu ahal izateko. Kadeteentzat berriz, handien taldea mantentzea lortu nahi dugu, aurrerantzean ere jokatzen jarraitzeko aukera izan dezaten, horretarako Irundik kanpo joan beharrik gabe. Beraz, gure nahi nagusia bizirautea da.

**“Azkenean, oso klub txikia gara eta denen parte-hartzea eta laguntza beharrezkoa da ekintzak aurrera eramateko”**

*Oier Dorransoro, Txingudi Eskubaloioko entrenatzailea*



ESTUDIO  
GO  
VER  
FOTOGRAFIA

LETXUNBORRO HIRIBIDEA 100. 2.  
943 840 113 - 647 930 484  
www.fotogover.com  
info@fotogover.com

**kiroletik**

BIDASOA ESKUALDEKO KIROLAREN TXOKOA

info@kiroletik.eus | (+34) 943 04 20 52 | www.kiroletik.eus





KIROLAK

## URANZU FRONTOIAK SANMARTZIALETAKO JAI GIROAN MURGILDUKO DU HALTEROFILIA EKAINEKO HITZORDU BIKOITZAREKIN

Bidasoa Halterofilia Taldeak hazkunde nabarmena izan du azken urteetan, neurri handi batean crossfitaren arrakastari esker, eta gaur egun 40 kide inguru biltzen ditu Irunen. Kirol honetan indarra ez ezik, teknika, oreka eta abiadura ere funtsezkoak direla azaldu dute Oier Eguiazabal eta Ruben Lago klubeko kideek. Halterofilia herritarrei gerturatzeko asmoz, ekainaren 27an Euskadiko Master txapelketa eta Sanmartzialetako Trofeoa antolatuko dituzte Uranzu frontoian, doako sarrerarekin.

**Klub txiki bezala hasi zineten, baina pixkanaka handitzea lortu duzue, ezta?**

**Ruben:** Nik uste dut crossfitak eragin handia izan duela honetan, halterofilia crossfitaren arlo handi bat delako. Nik uste jendea crossfita probatu ondoren, hona gerturatu dela.

**Oier:** Esango nuke, crossfita ezegun egin arte, Gipuzkoan halterofilia egiten zuen jende eta talde gehiago zeudela. Kopuru horiek pixkanaka jaisten joan ziren eta orain crossfitari esker goraka doa berriro. Crossfitean halterofilia mugimenduak egiten direnez, horiek gustuko dituen jendea, teknika hori hobetu nahian etortzen da.

**Indarraz gain, kirol honetan gauza gehiago ere lantzen dira, ezta?**

**Ruben:** Indarra arlo ezberdinetan landu daiteke eta horietako bat potentzia da, hau da, indarra bizkor aplikatzeko gaitasuna. Halterofilian hori da gehien lantzen dena. Horretaz gain, oreka, indar garbia edo abiadura lantzen dira. Halterofilian hasten garenean ia lehen urte osoa teknika ikasten ematen dugu eta ikasketa hori ez da inoiz bukatzen.

**Oier:** Oreka eta teknika oso garrantzitsuak dira, indarra baino gehiago agian, gero ariketa benetan ondo egin ahal izateko. Horregatik beroketa ariketak oso garrantzitsuak dira, noski, eta gero teknikaren lanketari ere lehentasuna ematen diogu, indarra lantzen hasi aurretik. Teknika aldetik beti dago hobetzeko zerbait, baita mugimendu txikienean ere.

**Teknika ondo menperatzea ere garrantzitsua izango da**

**“Gainera, frontoia beteta dagoenean, niretzat errazagoa da lehiatzea, animoak iristen zaizkizulako”**

*Ruben Lago, Bidasoa Halterofilia Taldea*

**lesioak saihesteko**

**Oier:** Halterofilian uste dena baino lesio gutxiago gertatzen dira. Mugimendu bat gaizki eginez gero, barra zure gorputzaren aurrean edo atzean geratuko da, eta beraz, erortzen uzten duzu, eta ez da ezer gertatzen. Horrela, gaizki egin arren, zu babestea lortuko duzu.

**Nola antolatu duzue aurtengo ikasturtea?**

**Oier:** Lehenik eta behin Nazioarteko Federazioak bere txapelketak jartzen ditu. Hori ikusita, Europar Federazioak hilabete lehenago bere hitzorduak finkatzen ditu eta berdin egiten dute Espainiako, Euskadiko eta, azkenik, Gipuzkoako federazioek, txapelketak hilabete tartearrekin antolatzen. Guk txapelketa gehienak Gipuzkoan jokatzen ditugu eta, aukeratuak garenean, Euskadira goaz. Adibidez maiatzean Euskadiko Txapelketa Absolutuan lehiatuko diren zenbait kirolari izango ditugu. Gipuzkoako Federazioko txapelketan, bai neskekin zein mutilekin, bigarren postua lortu genuen eta Gipuzkoako talde txapelketan berriro, mutilak bigarren izan ziren eta neskek



*Gora Irun!  
Gora San Martzial!*



**Grupo Marcal**

FINKEN ADMINISTRAZIOA - INMOBILIARIA KUDEAKETA - ZERBITZU JURIDIKOA

Pinudi kalea 21, Irun | (+34) 943 63 44 36 | irun@marcalasesores.com



hirugarren.

**Ruben:** Ez da ahaztu behar urtean lehiaketa pila bat dagoela lehiatu nahi duten horientzat, baita masterrentzat ere, 35 edo 40 urtetik gorakoentzat. Adibidez, klubean badugu 62 urteko gizon bat halterofilia praktikatzen duena, mundu mailan oso ondo dabilena. 13 urtetik beherakoak berriz, teknika lehiaketetan aritzen dira, haien kasuan helburua ez delako ahalik eta pisu gehien altxatzea.

**Beraz, halterofilia bakarkako kirola izateaz gain, taldean ere lehiatzen zarete?**

**Oier:** Bakoitza bere buruaren eta indarren aurka lehiatzen da berez, txapelketatik txapelketara emaitzak hobetu nahian, kirolarien artean kidetasun sentimendua ere sortzen da. Hau da, inguruan ditugunak ere hobetzen ikusi nahi ditugu, beraz, giroa oso ona da.

**Ruben:** Taldeko lehiaketak hasten direnean, 5 kirolari batera lehiatzen dira eta emaitza denek altxatutako pisuen batuketara da. Halterofilian 3 saiakera dauzkagu bakarrik eta bakoitzean 2 mugimendu dauzkagu, beraz, guztira 6 saiakera dira. Bakarrik ari zarenean saiakerek ez dute hainbesteko garrantzirik, baina taldean ezin dituzu hainbeste huts egite egin, beraz, pisu gutxiagorekin atera ohi zara. Estrategia handia eskatzen duten txapelketak dira taldekoak, beraz, politik iruditzen zaizkit.

**Bakoitza bere buruaren aurka lehiatzeak dakarren presioa nola kudeatzen da?**

**Oier:** Halterofilia oso muturrekoa da, pisua altxatzea lortzen duzulako edo lortzen ez duzulako, eta noski, egun on eta txarrak daude. Alde horretatik kirol arraroa da, oreka hori bilatzen saiatu behar zarelako. Batzuetan apur bat inkontzientea izan behar zara guk egiten duguna egiteko: altxa dezakegun pisu gehiena hartu eta gure buruaren gainean jartzeko.

**Ruben:** Hona gatozen guztiak motxila batekin etortzen gara kanpotik eta motxila hori kanpoan uzteko gai ez bazara, horrela

**“Aurten txapelketa ekainaren 27an izango da, egun osoan zehar, Uranzu frontoian eta sarrera doakoa da”**

*Oier Eguiazabal, Bidasoa Halterofilia Taldea*

ez zoaz inora. Besteetan, aldiz motxila arinagoa da eta denak pisu arinagoa duela sentitzen duzu bat-batean.

**Zuek ere zuen txapelketa propioak antolatzen dituzue eta horietako bi ekainean**

**egingo dira.**

**Oier:** Txapelketetan bakoitzak Rubenek azaldutako 3 saiakera ditu abidan eta 3 altxatze bultzatze saioan, eta puntuazioan haien batura egiten da. Ekainean Euskadiko Master txapelketa antolatuko dugu eta Sanmartzialetako Trofeoa. Bi txapelketa horiek batera egingo ditugu, beraz, txanda berdinean txapelketa ezberdinetan lehiatuko den jendea egongo da elkarrekin.

**Ruben:** Txapelketa honen alderdirik politena da jaien erdian egiten dela. Beraz, behin txapelketa amaituta, gero denak elkarrekin festaz disfrutatzeko eta elkarrekin zerbait hartzeko ohitura dugu, Sanmartzialetan murgilduz. Gainera, sarrera doakoa da eta aitzakiarekin jendea gerturatzen da, hain ezaguna ez den kirol hau ezagutzeko. Izan ere, gaur egungo gizartean ez da ezagunegia eta, niri pertsonalki, Irunen kirol hau gehiago ezagutzea gustatuko litzaidake. Zenbat eta gehiago animatu kirol hau probatzera eta praktikatzera, hobeto. Gainera, frontoia beteta dagoenean, niretzat errazagoa da lehiatzea, animoak iristen zaizkizulako.

**Oier:** Ez bakarrik gure kirola delako, baizik eta halterofilia gizarteari beste aisialdi aukera bat eskaintzeko modua delako, bereziki, gazteriari. Aurten txapelketa ekainaren 27an izango da, egun osoan zehar, Uranzu frontoian eta sarrera doakoa da, beraz, mundu guztia dago txapelketa ikustera gonbidatuta. Gainera, ez duzu zertan egun osoa bertan igaro; arratsaldean publikoa erakartzea errazagoa da edo maila handiko kirolariak lehiatzen diren orduetan.



C.D. SAN MARCIAL - 2023 - 2026 BABESLETZA

TALDEAREN FUTBOL EGOKITUAREN ETA OINARRIZKO FUTBOLAREN PROIEKUAN KOLABORATU  
ENPRESA BAT BADUZU ETA KLUBAREN FAMILIAKO KIDE IZAN NAHI BADUZU, ZURE ZAIN GAUDE!

#GOAZENSANMARCIAL

Ama Birjina Mirarietako Kalea 7, Irún | 943 96 99 12 | patrocinios@cdsanmarcialirun.com



BETI GAZTE

## TXINGUDI IKASTOLATIK AEBETARA: MUGAK GAINDITZEN DITUEN EUSKAL ENBAXADA GAZTEA

Txingudi Ikastolak ibilbide luzea du nazioarteko elkartrukeetan, baina aurten urrats bat harago joatea erabaki du. Erasmus+ programaren baitan, aurten ikastolako lau ikasle AEBetara joan dira nazioarteko ikasleen topagune batean parte hartzeko, apirilaren 9tik 21era. Irune Gómez, Maddi Celihueta, Haizea Berastegi eta Ane Plaza izan dira esperientzia aitzindari honen protagonistak, eta bueltan, bi aste horiek beren bizitzetan utzitako arrastoa partekatu dute.

Lau ikasle bakarrik izan direnez, hautaketa prozesu zorrotza jarraitu da horretarako. Maddi Celihuetak azaldu duenez, dena gurasoen bilera batekin hasi zen, non Araitx eta Maitane irakasleek proiektuaren nondik norakoak azaldu zituzten. Ondoren, notak aztertu ziren: “Lehenik eta behin 4. mailako DBHko ikasle guztien notak begiratu zituzten ikasleen lehen aukeraketa bat egiteko”. Baina espedienteaz gain, aukeratutakoek frogatu behar izan zuten gai zirela Euskal Herriko kultura ingelesez azaltzeko.

Bigarren fasean, hainbat frontetan erakutsi behar izan zuten zeukaten maila: “Aukeratutako ikasle horiek bigarren fase batera pasa ginen eta bertan ingelesez aurkezpen batzuk egin behar izan genituen erakusteko nola aurkeztuko genukeen Euskal Herria eta bertako kultura hemendik kanpo”. Idazlanek eta banakako elkarrizketek osatu zuten prozesua, ahozko nahiz idatzizko komunikazioa neurtzeko. Irune Gómezek gogoratzen du tentsio uneak izan zirela: “Orduan jada gu oso urduri geunden eta oso zaila izan zen, baina azkenean dena ondo atera zen”.

Hau ez zen ohiko elkartruke bat izan, nazioarteko topagune bat baizik. Behin izenak baieztatuta, prestaketa lan eskerga hasi zen. Ikasleek euskal kultura zabaltzea zuten helburu, eta horrek lan karga handia ekarri zuen. Irakasleen laguntzaz, lana zatitu eta liburutegian elkartu ziren bidaiaren aurreko arratsaldeetan. Bertan, posterrak, aurkezpen digitalak eta material didaktikoa prestatu zituzten, munduaren aurrean aurkeztu beharreko mezua finduz.

**Kultura talka eta egokitzapena**  
AEBetara iristea begiak

**“Hasieran dena apur bat arraroa egin zitzaigun, dena oso handia eta ezberdina delako”**

*Maddi Celihueta, Txingudi Ikastolako ikaslea*

zabaltzea izan zen. Dena zen handiagoa, desberdina. Maddik onartzen du hasiera ez zela erraza izan: “Hasieran dena apur bat arraroa egin zitzaigun, dena oso handia eta ezberdina delako”. Hala ere, estatubatuarren bizimodura moldatzea espero baino azkarragoa izan zen. Iruneren ustez, bi munduen artean aldeak egon arren, integrazioa erabatekoa izan zen: “Azkenean oso ondo ohitu ginen, nahiz eta egia den Europako eta Ameriketako bizimoduaren artean ezberdintasunak daudela”. Hainbestera, non bidaiaren amaieran denek luzatu nahi zuten egonaldia.



*Gora San Martzial!*

**MARRIED**  
novias

Letxunborro Hiribidea 100, 2C | 943 61 92 37 | facebook/marriednovias



**“Niri oso polita iruditu zait Euskal Herriko arrasto bat bertan utzi izana”**

*Ane Plaza, Txingudi Ikastolako ikaslea*

Topagune hau ez zen AEBetako ikasleekin soilik partekatze espazio bat izan. Mundu osoko gazteen elkargune bilakatu zen. Txingudiko ikasleek Ukraina, Bosnia-Herzegovina, Alemania, Italia eta Suediako gazteekin partekatu dute esperientzia. Maddik nabarmendu duenez, “Alemania eta Italiako lagun berri asko egin ditugu”, eta harreman horiek ez dira han amaitu; Irunek baieztatu duenez, gaur egun oraindik ere kontaktuari eusten diote. Eskolaz kanpo ere, hango ikasleek festak antolatzen zituzten, adibidez igerilekuan, harremanak estutzeko.

Bidaiaren alderdi garrantzitsua “irakasle” papera jokatzeko izan zen. Haizea Berastegik eta Ane Plazak azaldu dute hiru egun igaro zituztela klaseak ematen. Han, euskal kulturaren zertzelada orokorrak eman zituzten lehenik: kokapena eta gastronomia, baita dastatzeko produktuak ere. Baina sakonago ere joan ziren: “Hango ikasleei klaseak eman genizkienean, gauzak sakonago azaltzeko aukera izan genuen, esaterako, euskararen inguruan”.

Euskara sustatzeko egitasmoak (Korrika edo Herri Urrats), kirolak, dantzak eta mitologia landu zituzten, baita bertsolaritza ere. Ane Plazak hunkituta gogoratzen du nola euskara hango eskolako hormen artean geratu zen: “Euskarazko hitz batzuk erakutsi genizkien eta pasilloetatik hitz horiek behin eta berriro nola errepikatzen zituzten entzun genuen. Beraz, niri oso polita iruditu zait Euskal Herriko arrasto bat bertan utzi izana”. Gainera, alderdi zientifikoa ere jorratu zuten, Agenda 2030aren inguruko proiektuak eginez eta hezeguneei buruzko proiektua bertan aurkeztuz.

**Turismoa eta errealitate gordina**

Eskolako ordutegitik kanpo, ikasleek AEBetako ikur batzuk

ezagutzeko aukera izan zuten. Washington bisitatu zuten Alemaniako taldearekin batera. Gero, familiarekin batera New Yorken egun intentsu bat igaro zuten, haiek antolatutako bidaia bati esker. Haizearen hitzetan, “Egun bakarra izan zen, baina gauza asko ikusteko aukera eman zigun”.

Baina bidaia honek badu alderdi pertsonal eta gogorrago bat ere. Ukrainako ikasleekin hitz egiteak gerraren errealitatea aurrez aurre jarri zien. Haizeak dioen bezala, horrek mundu ikuskera aldatu die: “Ukrainarrek adibidez, erakutsi digute beraien bizimodua nolako den gerran daudenetik. Nola sufritzen duten eta zer arazo dituzten erakutsi digute... gure buruak irekitzeko balio izan digu”. Ikasteko baliabide falta duten arren, aurrera egiteko duten gogoak asko harritu zituen.

Ingelesarekin moldatzea erronka bazen ere, Txingudiko ikasleak komunikatzeko nola edo hala moldatu ziren. Anek dioenez, “Azkenean, kontuan izan behar da ikastolan ingeles maila gorena duten ikasleen artean egin zela aukeraketa. Beraz, guretzat ez da hainbesteko erronka izan”. Hala ere, onartzen dute batzuetan hangoen abiadurak eta azentu itxiak laguntza eskatzera behartzen zituela. Haizeak gaineratu duenez, “Batzuetan apur bat zaila zen edo trabatzen zinen”, baina bertakoen jarrera lagunkoia izan zen uneoro.

Buertatu ostean, ikastolan saio bat antolatu zuten esperientzia gainerako ikasleei kontatzeko. Lau ikasleek argi dute esperientzia hau errepikazina dela eta pertsonalki asko hazi direla. Haizearen ustez, Euskal Herrikoaz gain beste errealitate batzuk ezagutzeko funtsezkoa da. Anek argi dauka gomendioa: “Nire ustez bizipen guztiz gomendagarria da. Horrelako zerbait bizitzeko aukera izatea bizitzan gertatuko zaizun gauza politenetako bat izango dela esango nuke”. Laburbilduz, Txingudi Ikastolako lau ikasle hauen bidaia ez da soilik turismoa izan. Euskal Herriko kultura hara eramateko, nazioarteko lagunak egiteko eta munduko begirada zabaltzeko balio izan du.

**lassai**  
Psikologia  
ZERK KEZKATZEN ZAITU?

Bera bidasoa Kalea 14 - Behea, Irun | San Francisco Kalea 46 (10. lok), Donostia  
(+34) 632 40 21 88 | www.lassaipsicologia.com

**asesoría BAER S.L.**

Iparalde Hiribidea 3, Irun | 943 63 99 97



📍 CBA Kultur Gunea  
 ☎️ 943 50 54 44  
 ✉️ igazte@irun.org  
 📞 607 77 11 73  
 🌐 www.irun.org/igazte

## GAZTEENTZAKO HERRI BAZKARIA



Koadrilen eguna ospatzen den egunean, ekainaren 20an, guk gure bertsioa egingo dugu. **12-17 urte** bitartekoentzako egun polit bat antolatu dugu, hona hemen egitaraua:

**13:30** Martindozenea Gaztelekuan elkartuko gara. Denon artean, jantokia eta bazkaria prestatuko dugu.

**14:00** Gazte bazkaria!

**15:30-17:00** Taldekako herri kirolak


**17:00** Irungo festei hasiera emateko txupinazoa!

**18:30** Festa amaiera.

Doako ekintza da eta 20 plaza daude.

**Izen-emateak:** Gaztelekuan bertan edo whatsappera (690706471), Instagramera (@gazteleku\_martindozenea) edo korreora (gazteleku@irun.org) mezu bat bidaliz eman dezakezu izena.

## 15-18KO ESPAZIOA



Ekainean zehar **ekintza interesgarri** asko egingo ditugu **San Martzialak iritsi baino lehen!** Ekainaren 13an neon margoekin mihise edo **lientzoak margotuko** ditugu eta ekainaren 19an **mexikar sukaldaritzako** tailerra egingo dugu: benetako takoak egiten ikasiko dugu! **Zatoz espaziora eta eman izena!** Bestela bidalguzu mezu bat 656 79 43 72 - konekta@irun.org helbidera!

## KONEKTA (18-30 URTE)



Ekainaren 6an **Sugegorriak Roller derby taldea masterclass bat** eskaintzera etorriko da! Zatoz Roller derbya probatzera!

Ekainaren 20an **Asexora-t eta Konekta zerbitzuak Urdanibia plazatik** ibiliko dira Herri bazkariko giroan jolas batekin! Aurreko urtean bezala, oparitxoak banatzen egongo dira!

**AG**  
ORTODONCIA AMAIA GOENA



### ORTODONTZIA ESPEZIALISTA

HAURRAK - NERABEAK - HELDUAK  
ORTODONTZIA AURRERATUA - AZKEN TEKNOLOGIA

TEKNIKA MODERNOENAK  
IRRIBARRE POLITA BIZITZA GUZTIRAKO!

39 URTEKO  
ESPERIENTZIA

Beraketa Kalea, 14 | 943 61 47 45 | www.amaiagoenaortodoncia.com



KULTURA

## SWINGIN' BAYONNE



Oroimenean durundi egiten duten piezak entzuteko aukera izango dugu. Ez dago zuzeneko on bat baino hobeaorik esperientzia musikal bikainena bizitzeko eta berpizteko.

**Data:** Ekainaren 6an, larunbatean.

**Tokia:** Kaborri Bidasoaldeko Ateneoa.

**Ordua:** 19:30ean.

**Sarrera:** Doan.

## BIOTERRA



Bioterra Euskadiko **EKO azokak** kosmetika eta ehungintza ekologikoagatik interesatuta eta kezkatuta dauden pertsonen, enpresen eta erakundeen arteko lankidetzara errazten du.

**Data:** Ekainaren 5etik 7ra, ostiraletik igandera.

**Tokia:** Ficoba.

**Ordutegia:** Ostiraletan eta larunbatean 10:00etatik 20:00etara eta igandean 10:00etatik 19:00etara.

## AMETSA ABESBATZA



Bidaia nostalgikoa, garai guztietako soinu eta koru banda maitatuenetan barrena ibilbide bizia egiten duena eta gehien hunkitu gaituena eskainiko diguna.

**Data:** Ekainaren 14an, igandean.

**Tokia:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Sarrera:** 10 eta 15 euro artean.

## SUSANA FERREIRAREN ERAKUSKETA



Susana Ferreira irundarrak **oroimenari eta eraldaketari buruzko hausnarketa artistiko** bihurtu du Aduana Zaharra.

**Data:** Uztailaren 26ra arte.

**Tokia:** Menchu Gal aretoan.

**Ordutegia:** Asteburuetan, ostiral eta larunbatetan, 18:00etatik 21:00etara, eta igandean, 11:30etik 13:30era.



PAPERDENDA - KOPIADENDA - ESKULAN TAILERRA

Luis Mariano kalea 12 | (+34) 943 63 93 01 | irun@folder.es | www.folder.es

26/27 ikasturteko

# aurrematrikula

APIRILAREN 20TIK EKAINAREN 30ERA

**Orain!**



## EUSKARA-IKASTAROAK

### BIDASOKO AEK

Ikastaro mota	Ordutegia		
A1 maila	9:15 - 12:15 AS - OG	16:15 - 19:15 AL - AZ edo AS - OG + jarraipen pertsonalizatua	19:00 - 20:40 AL, AS eta OG
A2 eta B1 mailak	9:15 - 12:15 AL, AS eta OG	16:15 - 19:15 AL - AZ + jarraipen pertsonalizatua	19:15 - 21:15 AL, AS eta OG
B2 eta C1 mailak ikastaro konbinatua	08:00-09:30 Altik OGrA	16:15-19:15 AL-AZ edo AS-OG + bakarkako lana eta tutoretzak	19:15-21:15 AL, AS eta OG
	9:15 - 12:15 AL, AS eta OG + bakarkako lana eta tutoretzak		
C2 maila ikastaro konbinatua	9:15 - 12:15 / 17:00 - 20:00 AL edo AZ + bakarkako lana eta tutoretzak		
MINTZA taldea	09:30 - 11:30 AL - AZ	17:00 - 19:00 AS - OG	19.00 - 21:00 AL - AZ edo AS - OG
HIKA taldea	09:30 - 11:30 / 17:00 - 19:00 / 19.00 - 21:00 Astelehen eta asteazkenetan		

## UDAKO ESKAINTZA 25-26

### Aurrez aurreko taldeak

B2 eta C1 mailak lortzeko ikastaroak  
80 ordu uztailean + 30 ordu irailean\* ----- 110 ordu

**Uztaila:** Astelehenetik ostegunera 9:00-13:30

**Iraila:** Astelehen, astearte eta osteguna  
9:15-12:15 / 17:00-20:00

\* Iraileko ikastaroa egin ahal izateko, urri-ekaineko edo uztaileko ikastaroa egin behar da, ezinbestez.

Legia 6, behea, 20302 Irun

943 62 88 34 · irun@aek.eus · ☎ 688 74 66 33

